

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko azaroaren 7a / 649. zenbakia



FESTIVAL!



Grafitiak, breakdance eta scratch erakustaldiak eta musika uztartuko dituen jai berezia antolatu dute

ORAIN ETA HEMEN: VENE HERRERO AKTOREA/6 • ENERITZ TIRADOSEK DISEINU SARIA IRABAZI DU/7



MONDRA-UDA!

Debagoieneko derbi klasikoena Goiena Telebistan

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko
duzu!*

MONDRA-UDA
Laguntzaileak:
Basati, Bengoa, Branka, Ederra, Ezkiña, Hostal Musakola,
Iamai Kafe Antzokia, Iluntz, Irati, Iturriotz, Itzala, Lora,
Monte, Okorotegi, Ziorla.

Zapatuan, azaroak 8an
Atxabalpe futbol zelaian, 15:30ean.
19:30ean GOITBn

KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu Amaia antzokixen enpresa batek zine komertziala emutie?



ROSA ESPEJO
Langillie



TOMASA ESPEJO
Jubilaue



MIRTA PERAZA
Langillie



AITOR LIZARRALDE
Langillie



TXOMIN EZPELETA
Jubilaue



MERTXE VALDIVIESO
Langillie

Ondo ikusten dot. Aspaldixen Mondraguen ez dau beste zinerik, eta bidezku ikusten dot Amaia horretarako ibiltie: umiendako eta bestelakuendako pelikula emun daixela.

Oso idea ona dala pentsetan dot. Zinie asko gustetan jat eta Alai itxi euenetik ez naz barriro juen. Pelikulak telebisiñuen ikusi biher izaten dittut. Amaian emuten badaue, juengo naz.

Oso idea ona da. Gaiñera, oin neguen, hotzakin, pelikulak ikusteko gogo haundixue emuten dau. Amaian besterik ez daunen, pelikulak emun biherko leukie, jakaña.

Ni pelikulak ikustera Gas-teizera jueten naz, ohittura hori hartu dot. Baiñe umiendako eta nagusixendako, batez be, oso ondo ikusten dot. Herri danetan aukera hori egon biherko litzake.

Gu aspaldixen ez gare zine-rra jueten, baiñe batez be umiendako oso aproposa ikusten dot. Askok, negu partien, ez daukie ze egin, eta zinera juetie aukera politte da.

Ondo ikusten dot. Antzokixe egun askotan libre egoten da, eta biher dogune da herrixen gauzak egotie eta antzoki hori ibiltie. Jentie herrixen geraketako gauzak egin biher die.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK 'LA PELOTA VASCA' IRAGARRI GENUENOKO Joan den astean, ARRASATE PRESSko kulturako orrietan *La pelota vasca* filma eman behar zuten egunak txarto jarri genituen. Horren ondorioz, *Goienkaria*-n ere txarto agertu ziren egunak. Kontua da herritar asko Amaia Udal Antzokira gerturatu zirela, eta ez zutela film hori eman. Barkamena eskatzen diegu filma ikustera joan zirenei.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN/8

KULTURA /14

ZAHARRAK /17

Egitamu Orokorra

Aldaketak iragarri ditu Udalak Egitamu Orokorrean. Adibidez, Gelma lantegiari dagokionez.

Mexikarren kontzertua

Gaur, egubakoitza, Mexikoko talde batek eta Jon Sarasuak ikuskizuna eskainiko dute.

Nagusilanen egoitza

Atzo, eguena, Nagusilan elkarteak egoitza estreintatu zuen. Arrasate pasealekuan dago.

ASTEKODATUA

6

AUTOBUS JOAN ZIREN ANOETARA REALA IKUSTERA

Joan den eguaztenean, sei autobus joan ziren Arrasatetik Donostiara, Realeko partidua ikustera. Realak Juventusen aurka jokatu zuen, eta partidu hark jakin-min handia piztu zuen.

IRAKURLEAREN TXOKOA

“‘El Boulevard’. Izena gorabehera, hasierako artikulua iradokitzen du gure hizkuntzak aurki irekitzeko den merkataritza-gune erraldoi horretan jasan dezakeen diskriminazioa. Eta jasan idatzi dudanez, diskriminazio negatiboaz ari naiz, egoera eta gizarte sano eta normal batean positiboa izan beharko lukeena. Bidenabar, bitxia benetan izena, inguratzen gaituzten bi hizkuntzez osatua: el espainola, eta boulevard frantsesa. Eta oker ez banago, Eroski da alimaleko gune hori irekiko duena eta izen xarmargarri hori asmatu duena. Zuztarrak Arrasaten dituen Eroskiak, hain zuzen. Eta ni Arrasaten jaioa izaki. Eta, ezagutzen nautenek badakitez, nire herriaz harro nago (ia beti)...”

TXIPI ORMAETXEA
'BERRIA'/03-11-03

HERRITARREN BERBAK/ Asier Zubizarreta



Urtzilloko urak

Domusantu egunez bazkaria egiten dugu baserrian, su baxuaren epelean, etxeko beroan, eta baserrira joaten naizen bakoitzean egiten dudanez, Urtzillon izan naiz gaur ere, ez dago eta etxetik urrun. Leku zoragarria da, batez ere negu parteko hil urtsu eta ilunetan. Anbotoko haitzetik jaiotako urek, aspaldi jausitako errota doan ohiko bideari muzin eginez, barreneko putzura salto egin dute gaztaroko oldarraz, hango bitsa eta abarrotsa, harrizarren artean orroaka itsasora bidean, Ibaizabal izena irabazteko merituak egin nahian errekastoa. Umetatik neure-neurea dut parajea, zeuk ere izango dituzu zeure-zeureak.

77ko domeka goiz batez, Grupo San Juaneko ambulatario zaharren parean, dantzari gaztetxo andana inguruko herriren batera eramango dituen autobusaren zain. Umeak ume, jolasean dihardu-

te, dueloka, atrezzoko ezpata kamutsez. Halako batean denak gelditu egin dira, dantzataldeko bandera berria hortxe, begien aurrean, zuri gorri berdearen lilura begietan; ikurriña. Gero, txandaka astindu gura izan dute airean, kolorezko trapu bat, baina

berrogei urteren ostean ume bakoitzaren eskuetan lau haizetara aldarrika, bagara!

Sentimentu, kolore, paisaia, oroitzen kuttunak, norbere altxor txikia osatzen dutenak, norbere aterpea jasotzeko

harlanduak. Urliak eraikiko du Alejandriako liburutegia, sandiak Auschwitz-eko tximinoa, gehienok izoztetik babesteko txabola xumea, hargin bakoitzak bere zentzu eta jakituriaren arabera. En fiñ, alegoriak alegoria, jakin gura nuke noizbait ikasiko ote duten arnasa ere ukatzen diguten sasi-kosmopolita lotsagabe hoiak hurkoa errespetatzen. Urtzilloko urek eraman bitzate txakurraren salara!

“Jakín gura neuke nozpait ikasiko ote duten arnasa ere ukatzen diguten lotsagabe hoiak urkoa errespetatzen”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berebizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 7**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ZAPATUA, 8**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- DOMEKA, 9**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- ASTELEHENA, 10**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- MARTITZENA, 11**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUAZTENA, 12**
Español, Araba etorb. 17 943 79 18 65
- EGUENA, 13**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUBAKOITZA, 14**
Azkoaga, Iturriotz 943 79 79 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Igualetoia 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZAK**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

- MEZAK**
- San Joan parrokia**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parrokia**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
- San Andres eliza**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**
Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

'LA PELOTA VASCA'
Bihar (zapatua), domekan eta astelehenean Julio Medem zuzendariaren *La pelota vasca* filma emango dute Amaia Udal Antzokian. Zapatuan, 19:00etan eta 22:00etan; domekan eta astelehenean, 19:00etan. Hiru euro kostatuko da.

SALTSA IKASTAROA
Azaroaren 11n saltsa ikastaroa antolatu dute Musakolako kiroldegian. Martitzenero egingo dute, 08:30etik 10:00etara. Informazio gehiago honako telefonoan: 617 76 05 74 (Jose Luis Lorenzo).

MUNDUKO BERTSOLARIAK
Gaur, egubakoitza, Jon Sarasuak eta Gillerimo Velazquez eta Xichu mendilerroko lehoiek emanaldia egingo dute Amaia Udal Antzokian. 22:30ean izango da.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Eguenean, azaroaren 13an, *Pi* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

DEBAGOIENKO MUSIKARIAK
Datorren egubakoitzean, azaroaren 14an, Debagoieneko musika eskolek kontzertua egingo dute Amaia Udal Antzokian. 19:00etan izango da. Egiten duten lehenengo aldia da.

AEDrenAGENDA

'EGUNKARIA'-KO BATZARRA
Martitzenean, azaroaren 11n, *Egunkaria*-ren aldeko herri batzordeak batzarra egingo du. AEDn izango da, 18:30ean.

AED-REN 20. URTEURRENA
Eguaztenean, azaroaren 12an, AEDk elkartearen 20. urteurrena iragartzeko prentsaurrekoa egingo du. Monterronen izango da, 18:30ean.


URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Euskara elkarteek jardunaldiek, arrakasta

AEDk antolatuta euskara elkarteek gaineko lehen jardunaldiak egin zituzten Arrasaten, LKSren egoitzan. Guztira berrehun lagunek hartu zuten parte. Jardunaldiak AEDren 10. urteurrenaren ekitaldien barruan kokatu zituzten, eta oso arrakastatsuak izan ziren.




BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"kaskala"

1. Intxurrena, urrarena, gariarena eta beste fruitu batzuenak.
—Oso kaskal meia dauke arraultzok.
2. Kaskila, buruarina.
—Kaskal bat izan da beti eta oin be ala jarraitzen dau izaten.



ARRASATE IRRATIA FM 107.7



'La pelota vasca' Arrasaten

Aste honetan Julio Medem zuzendariaren *La pelota vasca* filma izan dugu hizpide irratiari. Jose Antonio Aspiazu historialari oñatiarrarekin egin dugu berba, Medemek elkarrizketa egin zion-eta. Laster DVDan ere eskainiko dute *La pelota vasca*, eta Aspiazuri egindako elkarrizketa ere izango da formatu horretan. Zapatua eta domeka goizean eskainiko dugu solasaldia, baita Mikel Usabiaga irakasleak teknologia berrien inguruan esandakoak ere.

Behobiako korrikalariekin

Arrasate Irratiak astelehenero tarte berezia eskaintzen dio kirolari, eta oraingoan, Behobiako lasterketa korrituko duten lagun batzuekin izango gara. 10:00etan, lasterketa ezaugarri horretako partaide batzuei elkarrizketa egingo diegu. Martitzenean, berriz, hileko galdera egingo dugu; herriak zinematik behar ote duen galdetuko dugu. Eta jarraian, Edorta Agirrek sukaldian ibiltzeko hainbat sekretu emango dizkigu.

HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 1	1°C
MAXIMOA Astelehena, 3	22°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	38,2 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 29	14°C 9°C 24,3 l/m²
Eguena, 30	16°C 9°C 7,8 l/m²
Egubakoitza, 31	17°C 10°C 6,1 l/m²
Zapatua, 1	13°C 7°C - l/m²
Domeka, 2	16°C 8°C - l/m²
Astelehena, 3	22°C 7°C - l/m²
Martitzena, 4	21°C 7°C - l/m²

Bergerako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Jose Antonio Aspiazu Medem-en filmaren inguruan; Mikel Usabiaga; Eusebio Iñarra eta Espe Lizarralde Obduli Ansuategi omenduz...
- DOMEKA**
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia: Albisteak eta elkarrizketa.
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera magazina: efermerideak, elkarrizketak, kirolak, abokatu, dietista...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:06 Igo autobusera magazina: sukaldia, literatura, musika, kontu-kontak...
11:30 Arrasate Irratiko albistegia.
11:40 Igo autobusera magazina: sarreraren zozketak, zorion agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunekin osatutako musika tarteak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra.

ASTEABIHITZETAN

Pedro Biteriren gaineko liburua

Aurki Pedro Biteriren biografiaren gaineko liburua argitaratu dute; hain zuzen ere, azaroaren 28an, Goi Eskola Politeknikoaren ikasturte hasierako ekitaldi ofizialean.


Kooperatibako sortzailetako batek, Jose Mari Ormaetxeak, eta Eskola Politeknikoko irakasle ohi Juan Leibarrek idatzi dute liburua. Besteak beste, liburuan arrasatear horrek herriari egindako ekarpena aztertu dute. Aurten, 150 urte bete dira Biteri jaio zela.

Epeleko ur-araztegia 2005erako

Epelen egiteko asmo duten ur-araztegia bi urte barru hasiko dira eraikitzen. Aurrekontu handia dute lanek. Espainiako Sustapen Ministerioak emango du dirulaguntza; datorren urtean proiektua idazten hasiko dira, eta bi urte barru hasiko dira lanak egiten. Epeleko ur-araztegiarekin, Arrasaten batutako ur zikin guztiak garbituko dituzte, eta erre kara garbi-garbi bota. Horretarako, denbora luzea darama Arrasateko Udalak herriari ur zikinak batzeko kolektoreak ipintzen.

Pasaiako portua, Monterronen

Pasaiako portua: iragana, oraina eta etorkizuna izeneko erakusketa Monterronen egon da egunotan. Gipuzkoako Ganberak eta Pasaiako portuko agintaritzak antolatu dute erakusketa. Besteak beste, portuak mendeetan gizartean izandako garrantzia, gaur egun dituen ezaugarriak eta etorkizunerako dituen egitasmoak azaltzen ditu. Hala, iraganari begira, erakusketak erakusten du Erdi Arotik XVI. mendera arte Espainiako Koroarendako gune estrategikoa izan zela Pasaiak. Gaur egungoaren gainean, berriz, dio portuko zirkulazioaren %57 siderurgia alorrekin lotutakoa dela. Eta, aurrera begira, portua handitu beharko dela.



Administrazioan euskara gehien

Joan den egunean aurkeztu zituzten euskarazko eskaintza-aren gaineko emaitzak. Ikerketa egin duen ikerlarietako batek, Pablo Suberbiolak, argi utzi zuen Arrasaten euskararen ezagutza eta euskararen erabilera parekoak direla eta euskara gehien erabiltzen den lekua administrazioa dela.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Enrike Letona askatzeko

Aspaldi honetan gauzak asko okertu dira Euskal Herrian. Badirudi PPK Prestige ontzia hondoratu osteko azken buztankadak eman gura dituela. Euskaldunei tokatu zaigu loteria hori. Dena delakoagatik komunikabideak ixtea, ehunka lagun atxilotzea, batzuk espetxeratzea... eguneroko ogi bilakatu dira. Edozein huskeriagatik

euskaldunak Audientzia Nazionalera bidali dituztela entzuten ohitu gara.

Testuinguru horretan koka dezakegu Enrike Letona arrasatearrari egin diotena. 30 urteko kartzela zigorra bete ostean, maiatzaren 16an kalera irten zen. Erredentzioei esker -besteak beste, kartzelan hiru karrera egin zituen-, azkarrago bete zuen zigorra. Uztailearen 31n

atxilotu eta kartzelara eraman zuten berriro. Leporatzen dioten ustezko delitua 1981ekoa da, eta bete duen zigorra 1979 eta 1983. urteen artekoa da. Berez, epaiak ez dauka zentzurik, eta Estatuko jurisprudentzian ez da halako beste kasurik ezagutu.

Horregatik, hainbat herritarrek eta taldek Enrike Letona askatzeko Bilgunea sortu dute. Azaroaren 15ean manifestazio isila deitu dute.

ASTEKOIRUDIA




OLAIA MONDRAGON

JENDEA IBILI DA HILERRIETAN, BAINA BESTETAN BAINO GUTXIAGO

Domu Santu egunean ohi denez, hilerrriak jendez bete ziren zapatuan leku guztietan. Arrasaten ere hala izan zen, bai San Kristobalen baita Aldain ere herritar dezente ibili zen. Eta seguru asko auzoetako hilerrriek ere bisita dezente izan zituztela. Hori bai, eguraldiak ez zuen batere lagundu, eta herri-

tarrek bestetan baino denbora laburragoa eman zuten senitartekoak edo lagunak bisitatzen. Hori bai, inori ez zitzaion falta izan lorarik eta bestelakorik; eta, jakina, guztia txukun-txukun ipinita zegoen. Horrela, tristurari lekutxoak kendu eta egunotan dotore-dotore egon da hilerria. /U.M.



Gambrinus
garagardotegia


- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

San Andres auzoa Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

Aretz

Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

ELKARRIZKETA

VENE HERRERO/AKTOREA

“Gehien interesatzen zaidana antzerkia da, ikusleekin gertutasun handiena izateko”

IKER BARANDIARAN

Vene Herrero arrasatearra da, baina orain dela 17 urte Madrilen bizi da. Telebistan, zineman eta batez ere antzerkigintzan egiten du lan. Orain dela gutxi telebistako iragarki baten agertu da, “Filomena!” oihukatzen.

Noiz piztu zitzaizun antzerkiarekiko zaletasuna?

Institutuan ikasten nabilela piztu zitzaidan benetako zaletasuna. Antzerki autore batzuen (Lorca, Valle Inclan...) lanak irakurri nituen. Handik aurrera, antzerkiko pertsonaiek eta interpretazioak asko erakarri ninduten. 15-16 urte izango nituen, eta momentu hartan erabaki nuen aktore izan gura nuela. Hori baino lehenago, txikitan, abestea oso gustuko nuen, baina ez nuen oso ondo abesten, eta utzi egin nuen.

Zer esan zizuten etxekoek aktore izan gura zenuela esan zenienean?

Amak oso ondo hartu zuen; aitak, ostera, iseka egin zidan. Geroago, interpretazioa uste baino serioagoa zela ikusi zuenean, onartu egin zuen. Amari eta ahizpei esker egin nuen aurrera. Gasteizera jo nuen ikasteko asmoz eta, hara, eskola Donostiara eramanean zuten. Hala, Gasteizen La Farandula taldean sartu nintzen.

Zeren bila jo zenuen Madrilera? Eta zer aurkitu zenuen han?

1986an Madrilera jotzea erabaki nuen, Arrasaten eta inguruetan ezer ez zegoelako. Interpretazioa ikasi gura nuen. Oraindik ikasten nabil, baina sasoi hartan ez nekien ezer, aktore izan gura nuela bakarrik. Madrilgo Arte Dramatiko Eskolan probak egin nituen eta han hasi nintzen. Madrilera heldu eta bi hilabetera Arrasatera bueltatzeko zorian egon nintzen. Baina gogor eutsi nion, eta ez naiz damutzen. Ikasteko prozedura oso interesgarria izan da. Etengabe ikasten jarraitu behar da; izan ere, lanbide horrek eskatzen du.

Zein prestakuntza daukazu?

Besteak beste, Arte Dramatiko Eskolan Antzerki Klasikoa ikasi nuen Alonso de Santosekin. Horren ostean, hainbat ikastaro egin ditut: John Strasberrekin, Albert Boadellarekin, gorputz espresioa Marta Squinkarekin eta orain Arnold Tarraborelli koreografoarekin...

Garai baten umeendako antzerkia egiten ibili zinen...

Bai, Madrilgo eskolako ikasketak bukatu nituenean, El Glo-



ALBERTO ENCINAS

“Madrilera jo eta hiru hilabetera dena uzteko zorian egon nintzen, baina orain ez naiz damutzen”

bo Rojo taldetik deitu zidaten eta umeendako antzerkia egiten hasi nintzen. Lan handia izan genuen, baina aldatzeko gogoa nuen. Horren ostean, Los Goliardos taldearekin helduentzako ikuskizunak egin genituen, baita Frantziako talde batekin ere. Horiez gain, honako taldeetan ere hartu dut parte: La Brecha, Torrijas de Cerdo... Batez ere, antzerki klasikoa eta gaur egungoa egin dut.

Telebistan ere egin duzu lan, ezta?

Bai. Eskolako sasoiaren, noiz-behinka telebistarako deitzen zidaten, eta, besteak beste, honako saioretan hartu nuen parte:

“Orain, bi lagun Torpedolevel kafe-antzerki taldearekin burubelarri gabiltza”

Pedro I el cruel; Juntas, pero no revueltas; Eva y Adan, agencia matrimonial; Crónicas urbanas... Horrez gain, *Nadie hablará de nosotras cuando hayamos muerto* filmean egin nuen lan, baita hainbat film laburretan ere. Parte hartu dudana azkena honako hau da: *La mujer que soñaba*, Masha Gabrielelek zuzendu zuena.

Orain, Torpedolevel izeneko antzerki taldearekin burubelarri zabilte, ezta?

Bai. 2001ean, bost lagunek umore handiko antzerki-klasiko taldea sortu genuen; eta 2002an, taldeko bi neskek Torpedolevel taldea sortu genuen. Harremanen gainean egiten dugu berba, umore

“Joan den aspaldian sarritan joaten naiz herrira, eta aldatuta ikusi dut; ondo dago”

re ukituarekin (lagunak, bikoteak, sexua...). Umore azkarra da eta ez daukagu autozentsurarik. Kafe-antzerkia aukeratu dugu, ikusleekin harreman zuzenagoa izateko. Interesatzen zaizkigun gaiez egiten dugu berba. Arrasaten bizpahiru alditan izan gara. Lehenengo lana da *Las chicas serias no gustan*. Orain *Ya te digo!* lana estreinatu dugu, eta joan den asteburuan Bizkaian izan ginen. Abenduan Arrasatera joan gurako genuke.

Orain dela gutxi telebistan iragarki baten ikusi zaitugu...

Bai, *La mujer que soñaba* film laburra estreinatu zutenean, publizitate arduradun batek dei-

tu zidan iragarki hori egiteko. Lekunberrin grabatu genuen. Esne marka baten iragarkia da eta nik “Filomena!” oihu egiten dut. Ezagutzen nautenek zalantza izan dute iragarkikoa ni ote naizen edo ez, ama baten papera egiten dudalako eta zaharragoa naizela ematen duelako.

Antzerkian, telebistan eta zineman egin duzu lan. Zer duzu gurago?

Hiruretan interpretazioaren oinarria oso antzekoa da. Edoze-lan ere, niri gehien interesatzen zaidana antzerkia da, ikusleekin ahalik eta gertutasun handiena izateko. Zinema oso bat-batekoa da eta erronka handia da, berez oso interesgarria da. Telebistan lan egitea oso esperientzia interesgarria da. Entseatzeko denbora laburragoa dago eta asko ikasten da. Antzerkian, ostera, pertsonaia gehiago gara daiteke; ikuskizuna aurrera doan neurrian ere gara daiteke. Egia esatearren, antzerkia egiten dut gehien, eta agian horregatik dut gurago.

Dagoeneko casting-ak egiten aspertuta egongo zara, ezta?

Lanbide honetan hasi nintze-nean, casting ugari egin nituen, baina azkenean utzi egin nion. aspertu egin nintzelako. Horiek egiteko energia handia behar da. Orain dela gutxi, lagun batek filmetako casting-etara joatea gomendatu zidan, horretarako aproposa naizela uste duelako. Orain arte, zinemarako casting bakarra egin dut: Victoria Abri-lekin lan egin gura nuen, baina, azkenean, Agatha Ruiz de La Pradaren ahizpa kontratatu zuten. Hala ere, casting hartan parte hartzeagatik, *Nadie hablará de...* filman lan egiteko deitu zidaten. Baliteke etorkizunean casting-etan parte hartzea; egia esatearren, egin beharko nuke.

Arrasatera sarritan etortzen zara?

Aspaldian bai, batez ere Torpedolevel taldearen ikuskizunengatik. Urtetan ez nintzen Arrasatera joan eta azkenaldian, berriz, sarritan joaten naiz.

Herria oso aldatuta aurkitu duzu?

Bai. Arrasate politagoa dagoela esango nuke. Paseatzeko aukerara handiak eskaintzen ditu... Horrez gain, etorri naizen azken aldietan giro ona dagoela sumatu dut; badirudi kultura arloan gauza asko egiten direla eta horietarako ikusleak ere badaudela. Hala ere, herriko azkenengo zinema-aretoa ixtea oso triste iruditzen zait. Hori jakin nuenean lurjota gelditu nintzen; zerbait egin behar da.

GIZARTEA/ Diseinuarekin lotutako saria irabazi du Eneritz Tiradosek

Mundu mailako saria irabazi du Eneritz Tiradosek

UBANE MADERA

Eneritz Tirados arrasatearrak diseinuarekin lotutako mundu mailako sari bat irabazi du. CDak gordetzeko kartoizko kutxa batekin irabazi du saria. Lehenago ere sari gehiago irabazi izan ditu kaxa berarekin.

World Stars For Packaging izeneko saria irabazi du Eneritz Tirados arrasatearrak. CDak gordetzeko kartoizko kaxatxo baten-gatik eman diote saria. Kola erabili barik egindako kaxatxo da; erabiltzeko erraza da, egiteko oso merkea eta, batez ere, ekologikoa, birziklatzeko oso egokia. Egileak berak zera dio: "Simplera eta berezia da".

Ludipack II izena ipini zion Eneritz Tiradosek asmakizunari. Eta dagoeneko hiru sari eman dizkiote kaxa horregatik. Azkena -eta garrantzitsuena- datorren maiatzaren 26an jasoko du, Suitzako Basilea hirian. Diseinatzaile gazteei ematen dieten saria da, hain zuzen ere.

ESTATUAN EMAN DIZKIOTE BESTE BIAK Edozelan ere, 2002an irabazi zuen *Ludipack II* asmakizunarekin aurreneko saria, Bartzelonako

diseinu lehiaketa baten. Sari horrekin animatuta, Estatu mailako beste lehiaketa baten aurkeztu zuen asmakizuna. Aurten izan da hori, apirilean. Han ere lehenengo saria eman zioten. Sari horri esker, zuzenean World Stars For Packaging izeneko lehiaketara aurkeztu zuten *Ludipack* delakoa. Cairon (Egipto) batu zen lehiaketa horretako epaimahaia

joan den urriaren erdialdean. Eta mundu osotik bidalitako 319 lanen artean aukeratu zuten Eneritz Tiradosen kartoizko kutxatxo irabazle. Oraingo astean bertan jakinarazi diote berri ona arrasatearrari.

ARTE EDERRETAN LIZENTZIADUNA

Kontatu digunez, ez zuen espero halakorik; ezusteko handia izan da berarendako. Baina, jakina, pozik dago lortutakoarekin: "Batez ere jendeak norberak egindako lan baten arreta ipintzen duelako". Eta bere produktua komertzializatu ta ikustekak ilusio handia egingo diola esan du. Hori bai, komertzializazio horren eskubideak ez dira berarenak izango datozen bost urteotan; hortik aurrera, berri, norbaitek Eneritzzen asmakizuna erabili gura izanez gero, arrasatearrarekin berba egin beharko du lehenengo.

Arte Ederretan lizentziaduna da Eneritz Tirados; Leioan egin zituen ikasketak eta Diseinu Grafikoan espezializatu zen. Baina publizitatea du gustuko eta arlo horretan dabil lanean AZK enpresan. Aurrera begira bide beretik segitzeko asmoa daukala esan digu, publizitatean lanean gustura dabilelako.

Mundu osotik bidalitako 319 lanen artean aukeratu zuten Eneritz Tiradosena

'Ludipack' izena du arrasatearraren asmakizunak: CDak gordetzeko kartoizko kaxa da



UBANE MADERA

Oraingo astean jakinarazi diote Eneritz lehiaketa irabazi duela.



Eskualdeko ospitalean apurketak

Domeka arratsaldean apurketak eragin zituen gaixo batek eskualdeko ospitaleko larrialdi sailean. Gizonezko bat, 29 urteko V.L.P., bere onetik atera zen alta emango ziotela jakin zutenean. Itxura denez, ospitalean geratu nahi zuen; eta hori ez zela gertatuko ikustean, gauzak apurtzen hasi zen. Argazkian ikusten duzuen bezala, denetarik apurtu zuen; tartean, ordenagailu bi eta megatoskopio bat. Ertzaintzak joan behar izan zuen larrialdi sailera gaixoa baretzera. Eragindako kalteen ondorioz, larrialdi sailean ezin izan zuten lana behar bezala egin iluntzera arte.

Udal Euskaltegirako irakasleen bi lan poltsa sortu gura dituzte

U.M.

Arrasateko Udal Euskaltegiak bi lan poltsa sortu gura ditu: irakasle esperientziadunen lan poltsa eta praktika aldiko euskaltegiko irakasleena. Izena emateko epea bihar hasten da eta datorren astean bukatu.

Udal Euskaltegiko premien araberak, zerbitzu zehatzerako edo, hala badagokio, bitarteko zerbitzurako langileak lortzeko lan poltsak sortu gura ditu: irakasle esperientziadunena bata eta praktika aldiko irakasleena bestea. Interes dutenek bihartik (azaroaren

8a) datorren egubakoitzera arteko (azaroaren 14a) epea dute eskakerak aurkezteko. Gero, alkateak hurrengo hiru egunetan erabakiko du onartutakoan eta baztertutakoan zerrenda, eta udaletxeko iragarki-taulan eta Udaleko webgunean argitaratuko du. Gauza bera egingo du lehiaketa noiz izango den jakinarazteko. Udalak lehiaketarako deialdi bakarra egingo du, eta agertzen ez direnek ezin izango dute azterketarik egin.

Besteak beste, Irakasle ikasketak, unibertsitateko lizentziatura edo diplomatura eta EGA agiria edo baliokidea behar dira azterketa horietara aurkezteko.



LABUR

Ikasle Egunera joateko autobusa

Datorren azaroaren 15ean, zapatua, Ikasle Eguna izango da Alegian, Ikasle Abertzaleek antolatuta. Egun osoan egongo dira ekitaldiak, baina batez ere gaueko kontzertuak dira nabarmentzekoak. Hamlet, Habeas Corpus, O'Funkillo, Banda Basotti, Su ta Gar eta Berri Txarrak taldeek joko dute. Horren harira, Ikasle Egunera joateko autobusa antolatu dute Arrasaten; iluntzean aterako da autobusa, 18:00etan, Garibaitik. Joan gura duenak Iratin eman beharko du izena. Eta kontzerturako sarrerak aldezturako erosteko aukera ere bada, 12 euroren truke. Horiek ere Iratin saltzen dituzte.

Fagor eta Ikerlan TEAHA proiektuan

Fagor eta Ikerlan enpresak izango dira euskal ordezkarriak TEAHA izeneko proiektuan. Europar garatzen dabilen proiektua da hori, erai-kinen eta batez ere etxeen barruko aparailuen arteko komunikazioa lantzeko.

Egitamu Orokorrean aldaketak egingo ditu udal gobernuak


ARRASATE PRESS

Egitamu Orokorrek puntu beltzak dituela eta horiek zuzenduko dituztela esan du oraingo astean Inazio Lakuntza alkateak GOITBn. Olandixoko tunela ere berbagai izan zuen. Adierazitakoaren arabera, Diputazioarekin berbetan ibili dira dagoeneko.

Aspaldi dabil Arrasateko Udala Olandixoko tunela egin nahian. Eta orain arte, behin eta berriz jaso du Diputazioaren ezetza. Oraingoan, baina, eta Inazio Lakuntza alkateak GOITBri esandakoaren arabera, Diputazioarekin berbetan izan dira eta hitzez adostu dute Olandixoko tunela egitea. Arrasateko Udalaren usteetan, datorren urtean proiektua egiten hasiko dira eta 2005ean lanak hasteko moduan egongo dira.

GELMA BERE HORRETAN

Gelma ere berbagai izan zuten GOITBko *Herriz herri* programan. Alkateak argitu zuen GELMAren eraikina ez dutela bota gura. Are gehiago, uste du lantegi hori erabil daitekeela Industria museoa ipintzeko. Horrek esan gura du Udalak egindako Egitamu Orokorrean aldaketak egingo dituela



Gelma lantegia Industria museo izateko erabil daitekeela dio alkateak.

agintaldi honetan udal gobernuak. Inazio Lakuntzak esan zuen oraingo gobernu ez dagoela ados Egitamu Orokorrean onartutako gutziarekin. Egitamuak puntu beltzak dituela eta horiek berrituz aztertu behar dituztela. Hala, puntu horietan inplikaturik egon daitezkeen hiritarrek eta enprekin harremanetan jarri dira beharrezko aldaketak egiteko edo adostasuna lortzeko.

Mankomunitateko buru den

neurrian, erakunde horren gainean ere berba egin zuen Lakuntzak telebistan. Mankomunitatearen irudia indartu beharra dagoela esan zuen, besteak beste. Baita, bere ustetan Mankomunitateak zeresan handia izango duela Lurralde Zatik Planak Urkulun egin gura duenarekin; gogorazi zuen Mankomunitatea proiektu horren kontra zegoela, ea ahalgin guztiak egingo dituztela aurrera egin ez dezan.

Nekazaritzaren gaineko ikastaroak egiteko aukera

ARRASATE PRESS

Nekazaritzaren gaineko ikastaroak emateko aukera aztertzen dabilta Udalean. Baserrietan bizi diren hainbat lagunek eskaera hori egin zioten Udalari, eta hark baiezkota eman du.

Nekazaritza arloan heziketa kudeatzen duen Mendikoi izeneko enpresa publikoa arduratzen da mota horretako ikastaroak emateaz. Kontua da, gaur egun Zizurkilera edo Arabara joan beharra dagoela mota horretako ikastaroak hartzeri. Eta, jakina, hori urrutiti dago jende askorendako.

Hala, baserrietan bizi diren zenbait lagunek kezka hori azaldu zioten Joseba Ugalderei, Udaleko Ingurumen Saileko buruari. Eta mota horretako ikastaroak Arrasaten emateko aukerarik badagoen galdetu. Hark egoera aztertu, eta Mendikoiarekin berba egin zuen.

MENDIKOI ADOS

Bere aldetik, Mendikoi enpresak ondo hartu du eskaera, eta adierazi du ahalegina egingo duela irtenbideak aurkitzeko.

Hala, orain, Arrasateko Udalak ikastaroetan parte hartzeko

deia zabalduko du; horren arabera, interesa dutenek Udaleko Ingurumen Sailarekin harremanetan jarri beharko dira. Taldea osatzen badute eta taldekoen artean eman beharreko ikastaroak adosten badituzte, Udalak eta Mendikoi egoera aztertuko dute eta ikastaroak emateko lekuri proposena zein den erabakiko dute. Edozelan ere baliteke Udaleko Ingurugiro Eskolan ematea ikastaro horiek.

EZ DAGO DATARIK

Ez dute eperik jarri ikastaroak egiteko; aurten has daitezke, baina baita datorren urtean ere. Edozelan ere, esandako moduan, izena emateko epea zabalik dago, hortaz, komeni da lehenbailehen ematea izena.

Orain arte mota horretako ikastaroak egiteko interesa azaldu duten herritarrek baserri profesionalak ez diren baserri jabeak izan dira. Hau da, baserria izan arren, baserri kanpo lan egiten dutenak, jeneralean lantegietan. Baserri lan egiteko heziketa lortzea da gura dutena. Eta, gehienak lehenago ibilita daude nekazaritzarekin lotutako ikastaroak egiten. Adibidez, zelan kudeatu negutegiak ikastea gurako luketela adierazi diote Udalari.

Aldai hilerriaren irekiera egutegia dela-eta

Oraingo astean, Udalean herritar baten kexua jaso dute Aldai hilerriaren egutegia dela-eta. Herritar horrek salatu du hilerri hori itxita egon dela orain arte; eta Domu Santu egunerako eta aurreko astean zabaldu badute ere, oso ordu-tegi mugatua izan dela; adibidez, txandaka lan eginez gero, ezinezkoa zela hilerri joatea. Horrekin batera, Arimen Egunean hilerria zabaldu ez izana ere salatu zuen. Eta baita, hemendik aurrera hilerria betirako itxiko dutela han senideak dituztenei abisurik eman barik. Horren ondorioz, besteak beste, ezin izango dituzte hilerriantutako gauzak hartu.

UDALAREN ERANTZUNA

Horren aurrean, batetik Udalak erabaki du oraingo astean hilerria zabaltea, gura duenak han dituen gauzak hartzeko. Bestetik prentsa oharra plazaratu du. Han dio hilerriaren egoera ez dela ona; uztailean zorua hondoratu zela eta urriaren 30ean zuzaitzetako adar bat erori zela, besteak beste. Hala, ixtea erabaki zutela herritarren segurtasuna bermatzeko, eta ahalik eta gutxien zabaltea. Edozelan ere gaineratzen du badakitela hartutako neurriek samina eragin dezaketela herritar batzuegan; hortaz, sortutako eragozpenengatik barkamena eskatzen du.



Larrea plazako eskailera kentzeko eskaera

Arrasateko Udalak onartu egin du Larrea plazako bizilagunek egindako eskaera. Hau da, Usaetxe plaza eta Larrea plaza lotzen dituen eskailera kentzea. Hori bai, Udalak baimena ematen du eskailera kentzeko, baina auzokideek arduratu beharko dute lanok egiteaz. Horrez gain, auzokideek eskatu diote Zarugaldeetik Larrea plazara doazen eskailera garbitzea eta plazako garajeetan dagoen itogina konpontzea. Aurreneko eskaerari baietza eman dio Udalak; bigarrenaren kasuan, aldiz, auzokideen ardura dela adierazi du. /ARGAZKIA: GORKA MORRAS

LABUR

Enpresa txikiendako ikastaroak izango dira KZGunean

Enpresa txikiak aukera dute KZGunean Interneten gaineko ikastaroetan parte hartzeko. Jaurilaritzak bultzatutako ekimena da; 10 langiletik beherako enpresei euren operazioak Internet bitartez egiteko aukera ematen diete. Ikastaroak laburra dira, eta enpresa bakoitzak baten baino gehiagotan parte har dezake. Urriaren ikastaro batzuk eman zituzten. Azaroan gehiago izango dira.

Gasteizera txangoa, Emakume Txokoaren eskutik

Datorren zapatuan, hilak 15, Gasteizera txangoa izango da Emakume Txokoaren antolatuta. Egun osorako txangoa da. Goizean alde zaharrean bistaltali gidatua egingo dute eta arratsaldean Artium museora joango dira. 10:00etan aterako dira eta 19:00etan bueltatu. Izena emateko epea datorren eguaztenean, hilak 12, bueltatuko da. 943 79 41 39 telefonora deitzea nahikoa da; bestela, Emakume Txokora jo.



GORKA MORRAS

Oraingo astean hilerria zabalik egon da, jendeak handik gauzak har ditzan.

PERRETXIKO IKUSGARRIAK LAUBIDE PLAZAN

Domeka goizean umeak eta perretxikoak izan ziren nagusi Laubide plazan. Umeak Arizmendi eskolakoak eta perretxikoak inguruko mendietakoak. Dagoeneko ohitura da Arizmendikoendako udazken sasoiari perretxikotara joatea, eta aurten ere hala egin dute, hamahirugarren. aldiz. Oso eguraldi ona izan zutela kontatu digute, lagun asko elkartu zirela eta perretxiko asko batu ez bazituzten ere, batutako perretxikoak ikusgarriak zirela. Gero, Laubide plazan erakutsi zuten goizean batutakoa, eta bi sari eman zituzten: sorta onenaren saria DBHko 1. mailakoendako eta aurkezpen onenaren saria San Viator txikiko 6. mailako taldearendako. Gero, batek baino gehiagok tortilla ederra egingo zuten etxean!



JENDE MORDOA EGON ZEN CAPOEIRA IKUSTEN

Badirudi jakin-min handia pizten duela capoeira izeneko borroka-joko bereziak. Behintzat zapatuan jendez gainezka egon zen gaztetxeko areto nagusia. Taulan zazpi bat lagun borroka-arteak eta afrikarren antzinako erritualak uztartzen dituen akrobazia modukoak egiten ibili ziren. Eta jendea adi-adi haiei begira. Modu horretan erakutsi zuten zer ikas daitekeen Arrasaten oraingo astetik aurrera. Izan ere, Brasildik etorritako Bornay irakaslea capoeira ikastaroa ematen dabil Arrasaten. Lehenagotik ere ezaguna zaigu Bornay Arrasaten, San Viatorren eskolak eman zituen-eta. Horrez gainera, inguruan ere ibili izan da; Gasteizen, esaterako. Hala, zapatuko erakustaldian Mondragoeko eta Gasteizko jendeak lagundu zion.

ORGANO JOTZAILEA ARRASATEN, BAINA AHUNTZ BARIK

Gauza batzuk urteek aurrera egin arren ez dira aldatzen. Horietako bat da irudiotan ikusten duzuen ijito organo jotzailea. Askok umetatik ezagutzen dugu, baita gure gurasoek ere. Eta badirudi mendez mende aurrera egingo dutela kaleko musikari berezi horiek. Oraingo astean Arrasaten izan ditugu. Eta betiko moduan, herritarren arreta lortu dute, euren musika ozen eta bereziarekin. Hori bai, badago oraingo honetan faltan igarri dugun elementua: ahuntza, eskaileretan gora eta behera. Organotxoaren musika entzutean gehienok zera esaten dugu: "Han, badator ahuntza!". Ba, oraingo honetan ez da hala izan. Ahuntzarengatik galdetzean esan digute etxean geratu behar izan duela. Akaso hark ere horrenbeste jende gaixoarazi duen gripea harrapatuko zuen! Hurrengoan ikusi beharko.



OINTXE ARRASATE SASKIBALOI TALDEA

Zornotzaren aurka galduta, Ointxek azkeneko postuan jarraitzen du

Lehenengo zatia parekatua izan zen arren, 71-86 galdu zuen Ointxek Zornotza Harrisonen aurrean

ENEIDA ITURBE

Arrasateko saskibaloitza taldeak, Ointxe Arrasatek, hasierako faseko lehen itzulia ez du batera ondo amaitu. 15 puntuko aldearekin galdu zuen azken partidua, eta azkena da sailkapenean.

Ointxe Arrasate taldeak ez du nahi bezain ondo hasi saskibaloiko lehen mailako txapelketa. Taldea ez dago egoera onenean eta ordezeko gutxiarekin jokatu behar izan ditu azken partidua.

Aurreko zapatuan Iturripeko kiroldegian Zornotza Harrison talde bizkaitarra izan zuten arrasatearrek aurkari. Jarraitzaile ugari elkartu ziren han eta horrek indar handia eman zien jokalariei.

Gogotsu hasi zuten norgehiagoka mondragoetarrek eta hori markagailuan ere igarri zen. Lehen bi laurdenak oso parekatuta izan ziren eta tanto bat aurretik iritsi ziren deskantsua. Jarraitzaile ez zen hain ona izan; izan ere, taldeak behera egin zuen eta bizkaitarrek puntu askoko aldea lortu zuten. Hain zuzen ere, 71-86 geratu zen markagailua partiduen amaieran.

URDURITASUNAK EZ ZUEN LAGUNDU

Zapatuko partiduko lehen hogei minutuak eta azken hogei minu-



OLAIA MONDRAGONI

Asteburu honetan jokoa hobetzea espero dute Ointxekoek.

tuak izan ziren aipagarrienak. Baina arrazoi oso ezberdinegatik. Lehenengoetan joko ona egin zuten bai Ointxek eta bai Zornotza Harrisonek, eta partidua bizia izango zela zirudien.

Deskantsuan markagailua arrasatearren aldekoa zen: 42-41. Baina, dirudienez, atsedanak biz-

kaitarrei on, eta mondragoetarrei kalte egin zien. Kanpotarrek defentsa hobetu zuten eta saskiratzen jarraitu. Ointxeko jokalariek, ordea, urduritu egin ziren eta ez zuten aurretik azaldutako mailari eusterik izan.

Asteburu honetan hasierako fasearen bigarren itzulia hasiko

da. Bihar, zapatua, izango dute partidua Ointxekoek, 18:30ean, eta oraingoan ere, Iturripen. Iruñeko Club Natacion izango dute aurkari. Gorka Zurutzaren mutilek biharkoa aurreko partidua bezain ondo hastea espero dute, eta partiduan maila horri eusteko gauza izatea.

Aitzol Lazkanok erraz irabazi zuen eta hurrengo fasean da

E.I.

Aitzol Lazkanok bigarren faserako pasea erraz lortu zuen aurreko egubakoitzean Bergaran. Errani 22-1 irabazi eta gero sei pilotariren arteko liga jokatu du. Asteburu honetan deskantsua dauka.

Gipuzkoako taldekako txapelketa lehen fasean bost partidu jokatu ditu Aitzol Lazkanok eta horietako lau irabazi. Garaipen horiei esker bigarren fasean da arrasatearra. Asteburu honetan ez du partidurik izango, horiek hurrengo astean hasiko dira.

Lazkanorekin batera beste bost pilotari sailkatu dira hurrengo faserako. Baina ez dute guztiek guztien aurka jokatu. Aurkarietako hirurekin bakarrik izango ditu partidua arrasatearrek.

Beste bien aurka lehenengo fasean jokatu zuen eta orduko emaitzak hartuko dira kontuan,

berrito elkarren aurka aritu beharrean.


Lehen fasean bi taldetan banatuta zeuden pilotariak eta talde bakoitzean liga bat egin zen. Orain, liga bakoitzetik hiru jokalarik sailkatu dira.

AZKEN PARTIDUAN, GARAILE

Lazkanok Bergaran izan zuen azkeneko partidua aurreko egubakoitzean, hango Erran pilotariaren aurka. Partidu hori erabakigarria zen; irabaziz gero bigarren faserako pasea lortuko zuen arazorik gabe. Galduz gero ere bazuen pasatzeko aukerarik, baina beste pilotarien emaitzen arabera izango zen.

Dena dela, Lazkanok ez zuen besteen emaitzei begira egon beharrik izan. Erraz menderatu zuen pilotari bergararra eta tanto bakarra egiteko aukera baino ez zion eman.

Bigarren faseko partiduetan ere antzerako emaitzak lortzea ez legoke gaizki.



OLAIA MONDRAGONI

Lazkanok partidu erraza izan zuen pasa den egubakoitzean.

ATLETISMOA

Arrasatearrek Kutxa Txapelketa izango dira domekan

Arrasate Atletiko Taldeko gaztetxoek Kutxa Txapelketa parte hartuko dute domekan honetan, hilak 9, Donostiako Anoetako Belodromoan.

Txapelketa hiru maila haueko neska-mutilek parte har dezakete: alebinak (1992-1993an jaiotakoak), infantilak (1990-1991n jaiotakoak) eta kadeteak (1989an jaiotakoak). Atleta bakoitza banakako proba batean eta errelebutan trebatuko da.

Arrasateko taldetik alebinak eta kadeteak aurkeztuko dira. Lehenek 15 urte dituzte eta hiru urte daramatzate entrenatzen. Esperientzia handiko gazteak dira, beraz. Iñaki Etxagibelek eta Imanol Esperesatek 60 metroetako proba egingo dute; Markel Blancok eta Jokin Uribeetxebarriak 1.000 metroetako proba; Jon Ander Amadok eta Iñaki Telleriak luzera-jauzia; eta Aitor Otxoa eta Unai Ezkurrak pisu-jaurtiketa.

Alebinak 10 eta 11 urteko gaztetxoak dira. Txapelketa batean parte hartzea berria da euren artean eta oso pozik daude. Hala, gogotsu ari dira entrenatzen ahalik eta emaitza onenak izateko domekan. Horiek 60 metroetan, 600 metroetan, luzera-jauzian eta pisu-jaurtiketan trebatuko dira.

Sariak egingo dituzten proba bakoitzean lehenengo hiru postuetan geratzen direnak jasoko dituzte.

AGR Arrasate taldeak kostata irabazi zion Pasaian Donibaneri

ENEIDA ITURBE

AGR Arrasatek 23-27 irabazi zion Donibaneri Pasaian jokatuako partiduan. Ez zen partidu erraza izan, eta mondragoetarrek azkeneko zazpi minutuetan eman zioten buelta markagailuari. Honekin, Liga Txapelketako lau partiduetatik hiru irabazi dituzte, azkeneko biak, gainera, talde onenetakoen aurka.

Ligako hirugarren garaipena lortuta itzuli ziren etxera joan den asteburuan AGR Arrasate esku-baloitako taldeko jokalariek. Partidua Pasaian izan zen Donibaneren aurka eta lau puntuko aldearekin irabazi zuten mondragoetarrek. Markagailuak 23-27 adierazten zuten partidua amaieran, baina alde hori azkeneko zazpi minutuetan lortu zuten. Partiduan markagailua berdindu samar joan zen.

Garaipen horrek berebiziko garrantzia dauka, Donibane aurreko urteko liga txapelketa izan zen-eta.

Gol gehienak lehenengo zatian egin zituzten bi taldeek. Izan ere, ez batzuk eta ez besteak ere ez ziren batere fin aritu defentsan. Hortaz, gol errazak izan



OIAIA MONDRAGON

Partiduko momentu bat.

ziren eta bata bestearen ondoren etorri ziren: minutuko gol bat baino gehiago. Deskantsurako 17-15 zegoen markagailua.

GALTZEKO BELDURRA GAINDITU

Bigarren zatiari indarberriturik eta galtzeko beldurra alde batera utzita heldu zioten mondragoetarrek. Pitxi Herreroen iritziz, galtzeko beldur hori gainditzea izan zen partidua irabazten lagundu zuena.

Deskantsuaren ondoren AGR Arrasate lehenengo zatian baino askoz hobeto aritu zen defentsan. Eta hori igarri egin zen partidua emaitzan. Azken zazpi minutuetan 7-leko partziala lortu zuten arrasatearrek: 22-20 zegoen markagailua amaierarako zazpi minutu falta zirenean, eta 23-27 amaitu zen partidua.

Partidu horren ostean bigarrenak dira mondragoetarrek sailkapenean.

FOTOKIROLA



Arrasatek bitik bi irabazi ditu, azkena Besayaren aurka

Aurtengo ligaren hasiera biribila izan da Arrasaterentzat. Izan ere, jokatuako bi partiduetatik biak irabazi dituzte, eta erraz gainera. Pasa den asteburuan 38-0 nagusitu ziren Kantabriako Besayaren aurka Garagartzan jokatuako partiduan. Baina aurreko garaipena oraindik nabarmena goa izan zen: Getxo C ere hutsan utzi zuten, eta gainera eurek 72 puntu egin zituzten. Ligako lehenengo faseko partidua dira hauek, eta errugbilarien esanetan fase hau ez da oso lehiakorra. Talde onei eta kaxkarragoei elkarren aurka jokatzeko tokatzen zaie eta horregatik horrelako emaitzak ez dira arraroak izaten.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Alloña Taberna - Koka Juniors	8-6
Abokajarro - Rayo Aldeano	4-7
KPPC - AT, Celaya	1-21
Alpargatak estutu! - Bikain Akademia	7-3
Betrayer - Billy & The cowboys	5-4
Iriztu Taberna - You know	2-10

B MULTZOA

Goma 2 - El Ekipo A	4-2
AC Surcos - Fuxion	8-1
Toma Hawk - Whiskeria	7-2
Dribling - Etxerat	7-6
Lasagabaster - Dream Team	3-7
Speed boys - Errasti Kristaldegia	2-5

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. AT, Celaya	2	1
2. You know	2	1
3. Alloña taberna	2	1
4. Alpgatak estutu!	2	1
5. Rayo aldeano	2	1
6. Betrayer	2	1
7. Koka juniors	0	1
8. Billy & The cowboys	0	1
9. Abokajarro	0	1
10. Bikain akademia	0	1
11. Iriztu taberna	0	1
12. KPPC	0	1
13. Saukelu scream	0	0

PARTIDUAK

AZAROAK 8, ZAPATUA. EPAILEAK

9:50: Errasti kris. - Lasagabas. Bik. Akad.	
11:00: Bik. Akad. - Abokajarro. Erras. Krist.	
12:00: Whiskeria - Speed boys. Abokajarro	
13:00: AC Surcos - Tomahawk. Whiskeria	
15:00: You know - Alpar. est. Rayo alde.	
16:00: Billy & The... - Iriztu Tab. You know	
17:00: AT Celaya - Alloña taberna. Billy &...	
18:00: Goma 2 - Fuxion. AT. Celaya	

AZAROAK 9, DOMEKA

10:50: Etxerat - El Ekipo A. Dream Team	
12:00: Dream Team - Dribling Etxerat!	
13:00: Koka Jun. - Saukelu Scr. Dribling	

B MULTZOA

	P	J
1. AC Surcos	2	1
2. Toma Hawk	2	1
3. Dream Team	2	1
4. Dribling	2	1
5. Errasti kristaldegia	2	1
6. Goma 2	2	1
7. Etxerat	0	1
8. Lasagabaster	0	1
9. El Ekipo A	0	1
10. Speed boys	0	1
11. Whiskeria	0	1
12. Fuxion	0	1

ARAU BERRIEN LEHEN EMAITZAK

JOKALARI BATEK LAU PARTIDUKO ZIGORRA JASO DU

Aurtengoan antolatzaileek argi utzi dute ez dutela Zaldibar Txapelketan joko gogorre-girik eta epaileari irainik onartuko. Txapelketa hasi aurretik azaldu zuten nolakoak izango ziren zigorrak, eta lehenengo jardunaldian berretsi egin dituzte, oraingoan praktikan. Pasa den asteburuko partiduetan zigor gogorra ezarri zieten bi jokalariri: Koka Juniors taldekoa bata eta Abokajarrokoa bestea. Koka Juniors taldeko jokalaririk ezin izango ditu hurrengo lau partidua jokatu, zapatuko bere jarrera dela-eta. Epailea iraindu eta oso portaera txarra azaldu zuen. Eta zigorra ere gogorra izan da: lau partidua jokatu gabe. Abokajarro taldeko jokalariren zigorra, berriz, leunagoa izan da, bi partiduko. Bi taldeok zapatu goizeko bigarren eta hirugarren partidua jokatu zituzten eta badirudi beste taldekoek zigorrak ikusita gurago izan zutela txintxo ibili.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondragon - Aretxabaleta Preferente. Zapatuan, 15:30. Atxabalpen.	
Martutene - Mondragon Ohor. gazteak. Zapatuan, 15:30. Martutenen.	
REal Sociedad B - Arrasate Ohor. kadeteak. Zapatuan, 12:00. Zubietan.	

SASKIBALOA

Ointxe Arrasate - Iruñeko Club Natación Seniorrak. Zapatuan, 18:30. Iturripen.	
--	--

ESKUBALOA

Ormaiztegi - AGR Arrasate Seniorrak. Zapatuan, 18:00. Zubipen.	
Arrasate C - Pulpo 2. seniorrak. Zapatuan, 11:30. Musakolan.	

ERRUGBIA

Arratiako Txekorrak - Arrasate Seniorrak. Zapatuan, 16:00. Arratian.	
--	--

EMAITZAK

FUTBOLA

Erregionala: Anaitasuna - Mondra	2-1
Ohor. gazte maila: Mondra - Añorga	-
2. mailako gazteak: Añzola - Arrasate	0-5
Neskak: Mondragon - Urki	4-

SASKIBALOA

Seniorrak: Ointxe Arras. - Zornotza	71-86
---	-------

ESKUBALOA

Seniorrak: AGR Arrasate - Donibane	23-27
2. territ.: Arrasate C-BKU/CAF	22-13
2. territ.: Hondarribia - Arrasate	19-17

ERRUGBIA

Seniorrak: Arrasate - Besaya	38-0
--	------

FUTBOLA

Mondrak 2-1 galdu zuen Anaitasunaren aurka Azkoitian jokaturako partiduan

la partidu osoa jokalaria bat gutxiagorekin jokatu zuten arrasatearrek eta ezin izan zioten Anaitasunari irabazi

ENEIDA ITURBE

Lehenengo hamabost minutuetatik 1-0 galtzen eta jokalaria bat gutxiagorekin aritu zen Mondra Anaitasunaren aurka zapatuan jokaturako partiduan. Partidu zaila izan zen eta eguraldiak eta zelaiaren egoerak ere ez zuten lagundu.

Eguraldi txarra, etxetik kanpo jokatzeari, jokalaria bat gutxiagorekin aritzea... Guztia elkartu zen pasa den zapatuko partiduan eta Mondrak ezin izan zion egoerari nahi bezain ondo aurre egin. Edozelan ere, liga sailkapeneko lehenengo postuetan jarraitzen du taldeak.

Partidua hasiera-hasieratik zaildu zitzaion mondragoetarrei Azkoitian. Hamahirugarren minutuan lehenengo gola egin zuen Anaitasunak eta Mondra jokalaria bat gutxiagorekin geratu zen. Hala ere, arrasatearrek lehia berdintzea lortu zuten lehenengo zatia amaitzeko minutu gutxi falta zirela. Berehala eto-

rri zen erantzuna: bigarren zatiko lehen minutuan Anaitasunako Aranbarririk bere taldearentzat bigarren gola eta garaipena eman ziona egin zuen.

Hurrengo partiduan gertuko talde bat izango dute aurkari arrasatearrek: Aretxabaleta.

ISKANBILA OHOREZKO MAILAN

Ohorezko mailakoek Añorgaren aurka jokatu zuten pasa den aste-buruan. 1-2 izan zen emaitza, mondragoetarren alde. Baina emaitza horrek ez du baliozko-tasunik, partidua eten egin zuen eta arbitroak, harmailetan sortu zen iskanbilagatik.

Partidua amaitzeko hamabost bat minutu falta zirela, lehia ikustera gerturatu ziren zenbait zale borrokan hasi ziren harmailetan. Egoera hura ikusita, arbitroak partidua etetea eta baliorik gabe uztea erabaki zuen arbitroak. Jose Luis Ezkurra Mondrako presidentek ez du bidezkotzat jo erabaki hori eta errekurtsioa aurkezteko asmoa azaldu du.



Ohorezko mailako Arrasateko taldeak 1-2 irabazi zuen.



Uarkape 2, behea. ARRASATE. Tel.: 943 77 20 87
irudisport@telefonica.net
Ordutegia: 07:30 - 22:00

Ondo pasatu eta gainera ikasi egin nahi baduzu, badakizu zer egin:

**FUNKA ETA
HIP-HOPA
DANTZATU!!!**

ASTELEHENETAN ETA ASTEAZKENETAN
20:30 ETAN

Hazi egin gara, orain ekintza gehiago, ordu gehiago...

- BODY-PUMP
- BODY-COMBAT
- BODY-BALANCE
- AEROBIKA - STEP
- SPINNING-A
- TONIFIKAZIOA
- FUNKA
- HIP-HOPA

ANTZERKIA/ 'Urak dakarrena...glu-glu, glu-glu...' antzerki-bakarrizketa Jai Zale tabernan

AEDk Esther Uriaren antzerki-bakarrizketa eta bertso bazkaria antolatu ditu

IKER BARANDIARAN

Datorren egubakoitzean, azaroaren 14an, AEDk, Kultur Errotaren bitartez, beste ikuskizun bat antolatu du Jai Zale tabernan. Esther Uria aktore oreretarrak *Urak dakarrena, glu-glu, glu-glu...* antzerki-bakarrizketa eskainiko du, 23:00etan.

AEDk beste ikuskizun bat antolatu du Jai Zale tabernan. Datorren egubakoitzean, azaroaren 14an, Esther Uria aktoreak *Urak dakarrena, glu-glu, glu-glu...* bakarrizketa egingo du.

Esther Uriak urte asko daramatza antzerkigintzan. Antzerki ikasketak egin zituen, eta 1992a ezker dihardu lanean antzerkigintzan. Ikasketak bukatu bezain laster, Arteszena taldearekin *Cacatua verde* antzezlanean hartu zuen parte, Mario Gasen zuzendaritzapean. Maskarada taldearekin *Ernesto izatearen garrantzia* lanean ere hartu zuen parte, baita *Las bellas de Easo* ikuskizun musikalean ere.

1996an Sevillara jo zuen. Han, besteak beste, lau hilabeteko antzerki laborategi baten eskolak hartu zituen, eta Centro Andaluz de Teatro taldearekin *Las gracias mohosas* komeria prestatu zuten. Lan hori XVII. mendean oinarrituta dago.

TELEBISTAN ERE EGIN DU LAN

Antzerkian ibiltzeaz gainera, Estherrek telebistan ere hainbat lan egin ditu; besteak beste, telebistako honako saioetan parte hartu du: *Bi eta bat*, *Goenkale*, *Ander eta konpainia*, *Metropolis*, *Ana y los siete* eta *Hospital Central*. Eta zinemaren ere ibili da, *Al final de la noche*, *Algunas chicas*

Esther Uriak oso tonu ironikoan egiten du lan, eta ikusleak inplikatzeko saiatzen da

Antzerkigintzan ibilbide luzea egin du, eta telebistan eta zinemaren ere ibili da

eta *La noche del escorpión* filmetan, hain zuzen ere. Horrez gainera, orain dela gutxi, Francoren garaian kokatutako film labur baten hartu du parte; bitxikeria moduan esan beharra dago Donostian grabatu dutela, Aieten dagoen jauregi batean. Izan ere, Franco berri jauregi horretan bizi izan zen.

Esther 2001ean hasi zen bakarlari moduan, baina aldi berean beste lan batzuk uztartzen dihardu: Maskarada taldearekin *Combat* ikuskizuna eta Glub Glub taldearekin *Se busca impotente para convivir*. Luis Fernandez idazle madrildarra ezagutu zuen, eta hark *Urak dakarrena...* antzerkitako gonbita egin zion. Orduetik hona makina bat aldiz antzeztu du, Bizkaian, batez ere.

Estherren esanetan, antzerki-bakarrizketa horretan, gai askoren gainean egiten du berba: teknologia, Internet, sexua, telebista, bizitza... Oso tonu ironikoan



Kultur Errotaren bitartez Arrasaten ikuskizun interesgarriak ikusteko aukera dago.

egiten du eta uneoro ikusleak inplikatzeko saiatzen da. Horrek ikuskizuna asko aberasten du.

BERTSO BAZKARIA AED-REN ESKUTIK

Azaroaren 22an, zapatua, AEDk bertso bazkaria antolatu du Uarkape pilotalekuko tabernan. Bazkari horretan Xabier Amuriza eta Jon Maia bertsoetan ibiliko dira. Horiez gain, baina, AEDko

bertso eskolako hainbat lagun ere ibiliko dira bertsoetan. Besteak beste, ibarreko punta-puntako bertsolariak: Manex Agirre aramaiarra, Jokin Labaien arrasatearra eta Enaitz Alustiza bergararra.

Bazkaria 14:30ean izango da eta txartelak AEDn daude salgai. Txartelak 15 euro balio du, baina AEDko bazkide direnek 12 euro

ordaindu beharko dituzte. Horren harira, bertso bazkarirako txartelak azaroaren 14a baino lehen erosi behar dira.

Horrekin batera esan beharra dago AEDko bertso eskolan izena emateko aukera dagoela. Hain zuzen, 9 eta 12 urte arteko gazteei dago zuzenduta eskola, eta egubakoitz arratsaldeetan elkartuko dira AEDren txokoan.

Txistu kontzertua Aramaion eta Deba Garaiko Musika Eskola Amaian

I.B.

Arrasate Musikalek hainbat ekitaldi antolatu ditu. Gaur, egubakoitza, txistulariek kontzertua egingo dute Aramaion, Gantzagan. Eta hilaren 14an, Deba Garaiko Musika Eskola Amaian izango da.

Arrasate Musikalek hainbat kontzertu antolatu ditu. Gaur, egubakoitza, Arrasateko txistulariek kontzertua egingo dute Aramaion, Gantzagako elizan. 21:30ean izango da, eta zortzi txistularik hartuko dute parte. Besteak beste, honako kantua

eskainiko dituzte: Gorosarriren *Zortzikoa*; Ansorenaren *Uztai haundi dantza*, *Botxo* eta *Adiskide lasaia*; eta Garbizuren *Fandango* eta *Arin-arina*.

Zuzendaria Juan Karlos Larreategi izango da, eta Patxi Olavariak perkusioa joko du.

MUSIKA ESKOLEN ARTEKO HARREMANAK

Datorren egubakoitzean, azaroaren 14an, Deba Garaiko Musika Eskolako ikasleek kontzertua egingo dute Amaia Udal Antzokian. 19:00etan egingo dute eta honako herrietako musikariek joko dute: Eskoriatza, Aretxabaleta, Bergara, Oñati, Soraluze eta

Arrasatekoak, jakina. Ibarreko musikariek gainera, soralezatarreri ere parte hartzeko gonbitea egin diete.

Lehenengo aldia da Debagoienean horrelako kontzertu bat egiten dutela. Arrasate Musikalek bultzatu du ekimena, eta ibarreko beste herri batzuetako musika eskolekin harremanetan, jarri ondoren, ikuskizun hori egingo dute.

Musika eskola bakoitzak emandako emaitzak emaitzak emaitzak egingo du. Ekimenaren bultzatzaileak pozik daude emaitzarekin, eta musika eskolen arteko harremanak sendotu egingo direla uste dute.



Arrasate Musikaleko orkestra ikasturte hasieratik dabil entseguak egiten.

AHOZKO INPROBISAZIOA / Jon Sarasuaren eta Guillermo Velazquez eta Xichu mendilerroko lehoien emanaldia

Gaur, egubakoitza, Mexikoko talde batek kontzertu berezia egingo du Amaian

IKER BARANDIARAN

Bertsozale elkarteak *Ahozko inprobisazioa munduan* izeneko kultura arteko topaketak antolatu ditu. Azaroaren hasieran munduko hainbat herrialdeko taldeak ikus ahal izango ditugu Euskal Herrian. Arrasatera, hain zuzen, talde mexikar bat ekarriko dute.

Guillermo Velazquez eta Xichu mendilerroko lehoiak San Luis Potosikoak (Mexiko) dira. Guillermo Velazquez aspaldi hasi zen trobadore lanetan, eta 80ko hamarkada hasieran ezagun bilakatu zen. Guillermo nekazari girokoa da, eta haren helburua da bere herrialdeko tradizioa duintzea, berritzea eta indartzea. Gaur egungo gaien gaineko trobekin, hanka-kolpez lagunduriko valon eta sonekin, antzinako juglareen ikuspegi gaurkotua eskaintzen du.

TALDEAREKIN BAT EGIN ZUEN

Guillermo Velazquezek ahalegin handia egin du honako hau bermatzeko: trobadore-informatzailearen funtzio soziala, aldi bere-



Mexikoko talde horren eskutik corridoak, valonak eta sonak entzuteko aukera egongo da.

an antzele eta kontalari izatea, eta batez ere komunikatzea.

Orain dela urte asko, Xichu mendilerroko lehoiekin bat egin zuen. Hain zuzen, honako instrumentuak jotzen dituzte: bi bio-

lin, gitarra eta gitarratxo hua-pangeroa, besteak beste.

Trobadore horrek eta taldeak, batera, kontzertu ugari egin dituzte. Besteak beste, AEBetako Northwest Folklife jaialdian par-

te hartu dute. Batzuetan dantzari bikote batek laguntzen die, eta corridoak ere eskaintzen dituzte. Joan den aspaldian, euren eman-kizunetan Jon Sarasuarekin batera aritzen dira.

LABUR

Bihar, Itxaropena abesbatza San Frantzisko elizan

Bihar, zapatua, Elgoibarko Itxaropena abesbatzak kontzertua egingo du San Frantzisko elizan. Goikobalu abesbatzak antolatu du emanaldi hori.

Itxaropena abesbatza 1992an sortu zuten eta 1998ra arte Nerea Ugartek zuzendu zuen. 1998an, oster, Silvia Hernandezek hartu zuen lekukoa, eta gaur egun, Judit Murcia gaztea da abesbatzako zuzendaria. Taldea hamabost kidek osatzen dute.

Abesbatza horrek hainbat herritan egin ditu emanaldiak: besteak beste, Donostian, Eskoriatzan, Soraluzen, Lasarten, Deban, Zarautzen eta Donapaleun.

Joan den urtean abesbatzak hamar urte bete zituen, eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi egin zituzten.

Arrasaten honako kantutak abestuko dituzte, besteak beste: *Ave Maria*, *Cor Jesu Melle Dulcius*, *Il bianco e dolcecigno*, *O du stille zeit*, *Ilu-nabarra*, *Txanton piperi*, *The lion sleeps tonight* eta *Jacinto Chiclana*. Kontzertua San Frantzisko elizan izango da, 20:00etan.

Bihar, zapatua, hainbat lagunek hip-hop festa antolatu dute gaztetxean

I.B.

Bihar, zapatua, hip-hop festa erraldoia egingo dute gaztetxean. Hainbat herritarrek indarrak batu eta ia egun osoko egitaraua antolatu dute. Musikaz gain, erakustaldiak ere egingo dituzte.

Bihar, zapatua, herriko hainbat lagunek, Arraska elkarteak eta AGAKOk hip-hop festa ikusgarria antolatu dute. Jaia goiz hasiko da: lehenik eta behin, 16:00etan, Arrasateko bi grafitilarik *-Nase* eta *Ukan-* eta Bergarako beste bik *-Brook* eta *MDF-* gaztetxe kanpoko horma bat margotuko dute.

Geroago, 18:30ean, gaztetxe barruan hasiko dira ekitaldiak. Gasteizko Amenra Crew taldeak *breakdance* erakustaldia egingo du. Zazpi lagunek *-neskak* eta *mutilak* osatzen dute talde hori, eta lehiaketa askotan parte hartu izan dute. Arrasaten *breakdance*-a zelan egiten den ikusteko aukera paregabea izango da.

PUNTA-PUNTAKO DISKO JARTZAILEA

22:00etan, Texasako (AEB) Travis disko jartzaileak *scratch* erakustaldia egingo du. *Scratch* delakoa disko jartzaileek egiten duten

teknika berezia da, eta Travis teknika horretan maisu da. Izan ere, aspaldian Bilbon bizi den estatubatuar horrek Espainiako Estatuko disko jartzaile askori eman dizkie eskolak. Antolatzailleek, erakustaldia hobeto ikusteko, Travisen gainean kamera bat ipiniko dute eta aldi berean pantaila erraldoi baten disko jartzailearen trikimailuak ikusi ahal izango dira.

*Arratsaldean,
'breakdance' eta
graffiti
erakustaldiak
egingo dituzte*

*Texasako Travis disko
jartzaileak 'scratch'
teknikaren
trikimailuak
erakutsiko ditu*

Gaua aurrera doan neurrian, Burgosko hip-hop musika talde bat taula gainera igoko da. Taldea Voz Armada izango da. Lau lagunek osatzen dute: bi bikik abesten dute, neska batek koroak egiten ditu eta laugarrena disko jartzailea da.

Voz Armada taldea 1994an sortu zuten, Burgosen. Dagoeneko bi disko kaleratu dituzte: *Los MC's más fríos* eta *Forjando la leyenda*. Taldekoek hip-hop garbia edo purua egiten dutela diote, eta euren musika rap *underground* moduan definitu dute. Orain arte Espainiako Estatuan kontzertu asko egin dituzte eta talde askorekin jo dute (Falsalarma, SFDK, Mucho Mu, Violadores del Verso, El Chojin...). Orain arte ez dira inoiz Gipuzkoan izan, eta Arrasatera etortzeko ilusio handia daukate.

Jaialdi hori bukatzeko, hiru disko jartzailek musika ipiniko dute: Kaiet arrasatearrak eta Balza eta Eneko bergarrak, hain zuzen ere. Antolatzailleek aditzera eman dutenez, ezustekoak ere egongo dira.

Sarrerak lau euro balio du, eta herritar askok parte hartu dute berau antolatzen. Herritar guztiei gonbita egin diete.



Burgosko Voz Armada taldeak hip-hop kontzertua eskainiko du.

E, TXO!

GUREGAIK/ ARGAZKI ERAKUSKETA

Bidaien gaineko argazki erakusketa berezia ipini dute gaztetxean

IKER BARANDIARAN

Azaroa bidaien gaineko argazki erakusketa berezia ikusgai egongo da gaztetxean. Oskar Markaidak eta beste mungiar batzuek hainbat bidaiak egin dituzte, eta 35 argazki jarri dituzte ikusgai.

Oskar Markaida Mungiberri kultura elkarteko kidea da. Oskarrek eta bere lagunek bidaiak mordoak egin dituzte. Hegoamerikan, Afrikan eta Asian izan dira, eta, besteak beste, honako herrialdeak bisitatu dituzte: Bolivia, Etiopia, Kenya, Tanzania, Turkia, Mongolia, Laos, India eta Nepal. 1986an hasi ziren halako bidaiak egiten eta, tartean, Oskar Markaidak urte sabatiko baten Asia ezagutu zuen.

HERRITARREKIN BAT EGIN

Markaidak eta lagunek herritarrekin bat egiten dute. Euskal Herriatik hegazkina kontratatu eta bidaiak, uneoro, inprobisatu egiten dute. "Leku polit bat edo lagun on bat ezagutzen badugu, han geldituko gara, ez dugu aurretik planik egiten", dioskute.

Bisitatu dituzten lekuetatik Vietnamek asko inpresionatu ditu. Vietnam hegoaldetik iparraldera bizikletaz zeharkatu zuten, eta herritarrak oso atseginak direla diote. Horrez gain,

*Mungiberri
elkarteko kideek
Afrika, Asia eta
Hegoamerika
zeharkatu dituzte*

*'Euskal Presoak
Euskal Herrira'
zapiarekin oso
argazki bitxiak egin
dituzte atzerrian*

Birmania ere oso ikusgarria iruditu zitzaizkien; oso leku polita.

Hasieran, bidaiatzen hasi zirenean, mendia egitera joaten ziren, baina aspaldian ez dira mendira joaten. Bidaiak iraupen txikikoak badira, herritarrak eta herriak ezagutzeko ahalegin handiagoa egiten dute.

Mungiberri elkartekoek egiten dituzten bidaietan ohitura bitxi bat daukate: *Euskal Presoak Euskal Herrira* leloa daukan zapia eramaten dute, eta herrial-



GORKA MORRAS

Hilabete osoan egongo da argazki erakusketa hori ikusteko aukera.

de bitxietan hango lagunei zapi horrekin argazkiak ateratzen dizkiete. Esaterako, Egipton gizon bat ganbelu baten gainean eta piramide baten aurrean; militar bat Txinako harresian; budistak; tribuetako lagunak... Egia esanda, argazki horiek ikustea benetan bitxia da. Guztira, 35 argazki ipini dituzte erakusgai. Ez dira orijinalak, kopiak baizik. Izan ere, une berean erakusketa hori beste herri batzuetan ikus daiteke. Argazkia egiteko baimena

eskatzerakoan, zapiak zer esanahi duen azaltzen dute. Txinan militar bat hurbildu zitzaizkien, eta hari ere eskaera egin zioten. Militarrari zapiaren esanahia hiru alditan azaldu behar izan zioten, baina hark ez zien sinisten. Azkenean, Real Madril taldeko bandera zela esan zioten, eta oso harro egin zuen argazkia.

Mungiberri elkarteak erakusketako 13 argazkirekin egutegi bat egin du eta Durangoko Azokan salduko dute.

LOTSABARIK/ Karlos Rodriguez

"Oso perfekzionista naiz, batzuetan larregi"

I.B.

Karlosen zaletasun handiena musika da. Spank taldean jotzen du. Horrez gainera, judoa egiten du. Eta animazio filmak egitea oso gustuko du. Oso mutil alaia da eta gustura izan zen gurekin.

Txikitan zer izan gura zenuen?

Altuago (barreak). Zinema kontuek erakartzen ninduten eta film zuzendari izan gura nuen. 12 urte nituenean-edo etxeokoa kamera bat erosi zuten, eta animazio filmak egiten ibiltzen naiz, *playmobil*-ekin-eta. Beste zerbait ikasteko asmoa daukat, baina aisialdian animazio filmak egiten ahaleginduko naiz.

Zelan ikusten duzu zeure

burua hemendik 20 urtera?

Nik uste dut sasoi baten kanpoan biziko naizela eta adin horretarako Arrasaten bueltan egongo naizela. Bikotekidearekin biziko naizela uste dut, eta ez dakit umerik izango dudana. Publizitate enpresa baten gustura lan egingo nuke.

Zein da, zeure iritziz, adin ideala?

20 urte. Ordurako adinez nagusia izango naiz, lanean ibiliko naiz, gidatu ahal izango dut...

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Batzuen iritziz erantzun arraro samarra izango den arren, musikari garrantzi handia ematen diot.

Zerk arduratzen zaitu gehien?

Lagunen batek ezbeharren

bat izateak.

Zerk ematen dizu lotsa?

Gauza gutxiak. Agian, neska kontuetan gauzak aldrebes irte- nez gero lotsatuko nintzateke.

Zure alde onen bat? Eta alde txarren bat?

Berba egitea asko gustatzen zait, hori ona edo txarra izan daiteke, baina nire iritziz gauza ona da. Alde txar asko ditut: oso perfekzionista naiz, horregatik batzuetan nirekin taldean lan egitea ez da oso erraza izaten.

Zure gorputzeko atal gustukoena?

Eskuak. Betidanik oso gustuko izan ditut.

Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Neskei, normalean, oso-osorik begiratzen diet. Bestela, begiei eta ipurdiari.



BEHEKODENDATIK

Maria Jesus Martin

OMU ZERAMIKAK

XABIER URZELAI

Omu Zeramikak dendara juenez gero, Maria Jesusekin edo Teresak in egoteko aukerie eukiko dozue. Elkarrizketie egitteko gora eta behera ibilli ninduen, baiñe neska jatorrak die bixek be. Etxien ze baldosa jarri gure dozuen dezididuten lagunduko dutzue, eta oin, baiñuekin be hasi die lanien.

Txikittan ze gure zeuen izen?

Andereño.

Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?

Ez, gustora nau hemen.

Drogak legalizauko zeuke?

Ez.

Eta prostituziñue?

Hori be ez.

Ibarretxe Plana: ze pentsetan jatzu?

Horren gainien ez dakit ezer.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Ez naz zinezalgie / Flores en el ático / Hombres G gustetan jat.

Nora juengo zitzake gustora?

Costa Ricara.

Etxeko lan gorrotagarriena?

Plantxie egittie.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Kataloguek.

Tranpan ibiltteketan norbaittekin, zeñekin?

Richard Gerekin, adibidez.

Ze irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Euskadin pakien bizi garela.

Zergaittik egingo zeuke lanuztie gustora?

Egungo soldatak hobeketako egingo neuke lanuztie gustora.

Ze lan egitten dozue?

Jentiei orientetan lan haundi-ge gitten dogu. Askok ez daue jakitten ze gura dauen, eta lagun- ketan ahaleginketan gare.

Jentiek ze eskaketan dau?

Danetik. Jente gaztieku gauza modernueku gura dittu; gainiera, batzuk rebistekin etorten die. Hala eta be, askotan rebistan datorrena gauza bat da eta etxien egin leike-



“Marmolezko mosaikuek garestixek die; harrixek naturalak die, eta lan haundixe dauko”

na beste bat.
Nundik ekarten dozue matri- xala?
Castellonetik eta Italiatik.
Ze da garestixena?
Marmolezko mosaikuek gares- tixek die.
Zergaittik?
Lan haundixe daukielako. Harrixek naturalak die, eta mani- pulaute egoten die. Lehenengo mar- mola proportzionau biher da, eta klientiek gure dauen tamaiñuen ipi- ñi. Gero, harrixen kolore nahas- ketie elegidu biher da, eta horreik harrixok manipulaue eta ipiñi egin biher die. Lan haundixe da eta horregaittik da garestixe.
Bikote gazte batendako ze

“Bikote gazte batendako zerbait modernue ipiñiko neuke; oin, pieza luziek dauz modan”

elegiduko zeuke?
Bikote gazte batendako zerbait modernue ipiñiko neuke; oin, pie- za luziek dauz modan, kolore baka- rrekuek.
Eta familixa batendako?
Familixa batendako marmola gomendatuko neuke, eta diseiñu aldetik be marmol itxurie euki dai- xela.
Zeramika kontuez gain, bai- ñuek be saltzen dittuzue.
Bai. OMUn terrazuek egitten hasi gitzen oin dala urte asko. Mon- dragueko portal gehixenak egin eta gero, zeramikiek lan egitten hasi gitzen, eta oin, baiñuek be sal- tzen dittugu. Hor be jentiek gauza modernuek eskaketan dittu.

NIREBIDAIAHURA / Asier Altuna

Argentina / 2003ko abuztuan

Abuztuan Mondragoeko lau lagunek Argentinara-ko bidea hartu zuten. Asier Altuna, Markel Urrutia, Unai Aranguren eta Jon Sanchez eskiatzeko asmoz joan ziren Patagonia aldera. Eurekin, Gasteizko eta Plentziako beste bi lagun joan ziren. Pentsa ezazue, abuztu hasieran, Loiuako aireportuan, sei lagun snow taulekin eta sekulako motxilekin? Asier Altunaren esanetan, curiosoa izan zen: “Eske- rrak Loiu ez zegoela jende askorik. Madrilgo aireportuan, berriz, jende gehiago zebilen”. Hilabete eta erdirako joan ziren Argentinara, baina lan kon- tuengatik batzuek lehenago etorri behar izan zuten.



Hilabete eta erdi horretan Argentinako eski estazio eta glaziarretan eskiatzeaz gain, beste gauza asko egin zituzten: “Lehenengo hiru asteak eski- tzen eman genituen. Buenos Airesera iritsi eta Bariloche- ra joateko hegazkina hartu genuen. Han, Cerro Catedral- go eski estazioan eskiatu genuen. Lehenengo egunetan elurraren kalitatea ona zen, baina hilabeteak aurrera egin zuen neurrian elurraren kali- tateak behera egin zuen”.


Bariloche bi aste egin eta gero, Mondragoeko lagunek Ushuaiarako bidea hartu zuten: “Ushuaian astebete egin genuen. Cerro Castor estazio- an ibili ginen eskiatzen. Ikus- garria zen: Cerro Castor esta- zioa itsasoaren mailatik 200 metrora hasten da, eta 1.200 metrora dago puntu garaia; ia-ia itsasoaren mailan eskiatzen da. Ez dago misterio han- dirik, estazio hori Argentinako hegoaldean dago-eta. Antartidara bi mila kilometro baino gutxiago daude. Leku horri *Munduaren amaiera* deitzen diote”.

Datorren astean ere Argentinan jarraituko dugu Mon- dragoeko lau lagun horiekin, eskiatzen.

“Abuztua zen eta Loiuako aireportuan geunden snow taulekin”

“Argazki ikusgarriak egin ditugu Argentinan; sekulakoa da”

XABIER URZELAI



Mondragoeko lagunak *Munduaren amaiera* deitzen dioten lekuan.



Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaiak kontatzeko prest zaude? Anima zaitez, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71. 25 11 telefonora.



ESKORIATZA
Tfno 714345
ERRETEGIA
MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

ZAHARREN ETXETIK

Nagusilan elkarteak egoitza estreinatu du



Orain dela sei hilabete Arrasateko Nagusilan elkarteak aurkeztu zuten.



Nagusilanen egoitza Arrasate pasealekuan dago.

IKER BARANDIARAN

Nagusilan elkarteak egoitza propioa estreinatu du Arrasaten. Hain zuzen ere, egoitza Arrasate pasealekuko 3. zenbakian dago eta elkarte horrek Debagoienean zabaldu duen lehena da. Atzo, eguena, inauguratu zuten eta herritar askok hartu zuten parte ekitaldian.

Orain dela urte batzuk Nagusilan elkarteak sortu zuten Donostialdean. Elkarte horren helburua da bakardadean dauden edo laguntzeko premia duten erreti-

ratuei laguntza ematea. Nagusilan elkarteak boluntarioek osatzen dute, eta horietako asko erretiratuak dira. Euren aisialdian beste erretiratu batzuei laguntza eskaintzen diete.

SEI HILABETEAN 17 BOLUNTARIO

Orain dela sei hilabete, hainbat arrasatearrek ibarrean Nagusilan elkarteak sortu zuten. Hasiera baten Arrasateko elkarteak eratu zuten, baina beste herri batzuetako erretiratuak ere dituzte harremanak, elkarteak ibarrean zabal dadin. Arrasateko Nagusilan elkarteak eratu zutenean, aur-

kezpen-berbaldia egin zuten, baita beste hainbat berbaldi ere. Poliki-poliki arrasatearrek elkartera hurbiltzen hasi dira eta, dagoeneko hamazazpi boluntario dabilaz lanean. Ezagun da boluntario horietatik gehienak emakumezkoak direla.

Arrasateko boluntarioek, batez ere, Iturbide egoitzan eta Aita Menni ospitalean dauden edadetuei ematen diete laguntza. Guztira, zeregin horretan, 320 bat ordu egiten dituzte hilean. Horrez gainera, etxe partikular batzuetara ere joaten dira, han bizi direnei laguntzera. Esan

beharra dago Eusko Jaurlaritzak Nagusilan onura publikoko elkarte izendatu duela, egiten duen lanarengatik.

EKITALDIA ITURBIDE EGOITZAN

Arrasateko Nagusilan elkarteak arduradunak pozik daude izan duten harrerarekin eta lortu duten boluntario kopuruarekin. Orain dela gutxi Bergarako erretiratuak batzarrak egin dituzte eta laster, Bergaran ikastaroak egingo dituzte, hango boluntarioak treba daitezten. Oñatin ere badago halako beste elkarteren bat sortzeko asmoa.

Egoitza estreinatzeko egin zuten ekitaldiaren aurretik kontzertua antolatu zuten Iturbide egoitzan. Jose Maria Soroa musikari donostiarrak ikusizuna egin zuen Iturbiden, hango egoiliarrentzat. Iturbideko edadetuek oso ondo hartu zuten ekimena. Izan ere, oso gutxitan izaten dute aukera halako gauzak ikusteko. Jose Mari Soroa oso gizon umoretsua da eta oso kontzertu polita eman zuen.

Beraz, Nagusilanek hasi du ibilbidea, eta elkarteak indartsu datorrela erakutsi digute boluntarioek.



Mahai-jokoak Abaroa elkarteak

Azaroaren 26an, Abaroa elkarteak mahai jokoen txapelketa antolatu du. Honako jokoa izango dira: musa, tutea eta briska, bikoteka; eta billarra, banaka.

Txapelketan parte hartu gura duten bazkideek Abaroako bulegora jo beharko dute honako egunetan: martitzenean, eguaztenean eta eguenean (11, 12 eta 13). Modalitate bakarrean parte hartu ahal izango da.

Bestalde, Abaroa elkarteak aditzera eman du Gabonetako bi otarren txartelak salgai daudela. Erosi gura dituenak elkarteak bulegoan eskuratu beharko ditu, lehenbailehen. //I.B.

LABUR

Toki Argi elkartearekin zazpi egunez Italiara

Toki Argi elkarteak erretiratuak Italiara bidaiara antolatu dute. Martxoaren 24an irtengo dira Arrasatetik eta hilaren 31n bueltatuko dira herrira. Besteak beste, Niza (Frantzia), Pisa, Florentzia, Siena, Erroma, Padua eta Venezia bisitatuko dituzte.

Bidaia zoragarri horretara joan gura dutenek 570 euro ordaindu beharko dituzte. Bazkideez gain, herriko gainerako erretiratuak ere joan ahal izango dira Italiara.

Interesa dutenek jo dezatela lehenbailehen Toki Argi elkarteak duen bulegora.



ARRASATE
Raul Perrino "Perry"
Azaroaren 3an, 25 urte.
Urte askotarako! lagunak.



ARRASATE
Amaia Segovia
Azaroaren 8an, 11 urte.
Urte askotarako! Ane, Jon eta gurasoak.



ARRASATE
Iñaki Ormaetxea
Azaroaren 8an, 14 urte.
Urte askotarako! Ane, Jon eta familiakoak.



ARRASATE
Leire Urretxo
Azaroaren 2an, 26 urte.
Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Larraitz Vazquez
Azaroaren 3an, 26 urte.
Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Eñaut Bergaretxe
Azaroaren 6an, 4 urte.
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Ainhoa Etxebarria
Azaroaren 5ean, 11 urte.
Zorionak! Etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Tere Ezpeleta
Azaroaren 8an, urtebetezeta. Zorionak, amama! Etxekoak eta sorginak.



ARAMAIO
Ainhoa Vilches
Azaroaren 4an, 4 urte.
Zorionak! Leire eta familiakoak.



ARRASATE
Laia Martinez
Azaroaren 7an, urtebetezeta. Zorionak! Etxeko guztien partetik.



ARETXABAETA
Pili Urrutia
Azaroaren 7an, urtebetezeta. Zorionak! Laneko partetik.



ARRASATE
Josu Madinabeitia
Azaroaren 10ean, 1 urte.
Zorionak! Aitor eta familiakoak.



ARRASATE
Nerea Berezibar
Azaroaren 10ean, 13 urte.
Zorionak! Familiakoak eta lagunak.



ARRASATE
Eneko Alvarez
Azaroaren 12ean, urtebetezeta. Zorionak, Wallace! Lagunen partetik.



ARRASATE
Leire Zabaleta
Azaroaren 13an, urtebetezeta. Zorionak! Gaizka, Saio eta Nago.



ARRASATE
Leo Ziardegi
Azaroaren 13an, 90 urte.
Zorionak, amama! Etxekoak.



ARRASATE
Lorea Mateos
Azaroaren 8an, 2 urte.
Zorionak! Zure bi amonak eta lehengusuak.



ARRASATE
Irati Gallardo
Azaroaren 4an, 1 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Alain Concepcion
Azaroaren 11n, 1 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.



ARAMAIO
Claudia Nuñez
Urriaren 30ean, urtebetezeta. Zorionak! Horrela segi! Etxeko partetik.



ARRASATE
Aitor Aranbarri
Azaroaren 2an, 27 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Aitor Aranbarri
Azaroaren 3an, 1 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.

Arazo informatiko bategatik, lagun honen datuak galdu ditugu. Dena dela, zorionak berari ere:

Iker Heriz
Zorionak!

Zorionak!


Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

laster
informazioa "klik" batean

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

EZETZASMATU



ARRASATE PRESS

Berritu eta gero non egongo da Telleriako laba?
Arrastoa: lehengo lekuan dago, baina han zerbait berria eraikitzen dabilta.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Bilore detergentea
18 ontzitxo

2,09 € 348 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IÑAKI IRIONDOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Iñaki!
Galderen erantzun zuzena:
Industria Erakusketan.

ARRASATEKOHISTORIA

Alde zaharreko Ferrerías kalearen gainekoa

'MONDRAGON SUS CALLES', J. LETONA

Duda barik, Ferrerías da alde zaharreko kale ezagunena. Beheko portalean hasten da; han dago arku bereizgarriena; 1768ko abuztuan eraiki zuten arku hori Gazteluondon. Kontua da arkua oso elegante geratu zela garrantzi txikia zuen kale baten; Gazteluondon, alegia. Izan ere, Arrasate pasealekua eraiki zutenetik, Gazteluondoko joan-etorria dezente txikitu zen. Horren ondorioz, batzuek esan zuten pena zela horren arku polita han izatea, behean halako arku zakarra eta zatarra egonda. Hala, Udalak erabaki zuen arku biak desmuntatzea, berria beheko portalerara pasatzea eta zaharra Gazteluondora.

Esandako moduan, han hasten da kalea, Garibaik Arotz-kale izena eman zion. Bi sute jasan zituen Ferrerías kaleak: 1516an eta 1666an. Gorosabelek zera dio: 1666an hamalau etxe erre ziren Ferrerías kalean; 28 familia baino gehiago bizi ziren han; beste etxe batzuk ere bota zituzten sutea mugatzeko. Kale hartan dauden etxe aipagarrien artean honakoak

1666an 14 etxe erre ziren Ferreríasen; 28 familia baino gehiago bizi ziren han

Antzina egon ziren sutegi ugariengatik ipini zioten izena Ferrerías kaleari

nabarmen daitezke: 8. zenbakian Juan Carlos Guerraren etxea zegoen; harresiaren ipar-mendebalean Mugaibe dorrea zegoen, eta haren azpian Mugaibe oinetxea. 1973an bota zuten, eta etxe berriak eraiki. 28. zenbakian Barrutia-Mendia eta Gabiriaren oinetxea dago. Eta 42. zenbakian Loiti oinetxea. Gabiriaren etxea Bergarakotik dator; haien arbasoak 718a



GORKA MORRAS

Ferrerías kalean dago herriko arku bereizgarriena; Gazteluondorako eraiki zuten, baina gero Ferreríasen ipini zuten.

ezkero Nafarroako erregeen zerbitzura egon ziren. Adibidez, Antso Abarka erregeari lagundu zioten Iruñea defendatzen.

Ferrerías kalearen gainean dauden dokumentuen artean

batek zera dio: kalean gertatu zen sutea zela-eta Arrosarioko Amabirjina atera zuten prozesioan, eta haizearen noranzkoa aldatu egin zen. Harrezkero Amabirjina ateratzen ibili ziren

abuztuaren 15ean. Gero, Arantzazuko erromesaldia hasi zenean, han segitu zuten Amabirjina omentzen.

Antzina zeuden sutegiengatik ipini zioten Ferrerías izena.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko azaroaren 7a / 84. zenbakia


KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Aramaiarren babesaren lortu gura du hAMAlau taldeak

UBANE MADERA

Hauteskundeak izan zirenetik orain artekoaren balorazioa egin du hAMAlauk. Gobernu-kideen borondate falta salatzen dute. Aurrera begira, herritarren babesaren lortu gura dute.

Orain artekoaren "oso balorazio txarra" egin du hAMAlauk. Besteak beste, salatzen du orain arte ez dutela udal gobernuan parte hartzeko aukerarik izan, eurek ahalgintza eginda ere, hauteskundeak izan zirenetik hiru hilabeterean ostean ez dutelako egin dako eskaeren erantzunik jaso. Maiatzeko hauteskundeetan eurek lortutako botoei dagozkien hiru zinegotzien lekuak hutsik uzteko eskatzen diote EAJk eta EAK osatutako gobernuari. Baita, besteak beste, osoko bilkuretarako deiak eta batzarretako gaien informazioa jasotzea eta lan egiteko lekua ere. Horrez gainera, adierazten dute gobernuko alderdiek ez dutela gauzak konpontzeko borondatearik. Zenbait herritan formula legalak erabili dituztela arazoari aurre egiteko (Eskoriatzan, adibidez, legez kanpo utzi zuten alderdiak hiru batzordetako ardura dauka); hortaz, Aramaion ere egin daitekeela halako



ARTIBOIA

hAMAlau taldeak sinadurak batuko ditu Udalean taldearen parte-hartzea bultzatzeko.

zerbait. Eta alkateari esaten diote herriko bizitzan parte hartzeko Udalaren webgunean egindako gonbidapena bete dezala edo argi dezala zein den bere jarrera.

HERRITARREN BABESAREN BILA

Horrez gain, hAMAlauko kideek adierazi digutenez, aurrerantzean bide beretik segitzeko asmoa dute, hau da, Udalean parte hartzeko

ahalgintetan. Horretarako, besteak beste, herritarren babesaren bila joko dute; adibidez, sinadura bilketa egingo dute. Bestalde, adierazi digute orain udaletxetik osoko bilkuren aktak jasotzen hasi direla, baina batzarretara joateko deialdirik ez dutela jaso. Era berean, argitu gura dute ezin dutela udal batzordeetan parte hartu, batzarrak lanorduetan direlako.

Buzkantzak jateko eta bildotsak etxerako

U.M.

Aramaioko patroien egunean ezin da falta herriko Kalejiran Trikitixa Taldeak urtero antolatzen duen Trikitilari Eguna. Bihar egingo dute ospakizuna, arratsalde partean. Besteak beste, eta sasoi honi dagokien moduan, buzkantzak banatuko dituzte herritarren artean, Herriko Plazan.

Jaia 18:00etan hasiko da. Herriko trikitilari taldekoek euren musika-tresnak hartu eta doinu bizi-biziz beteko dituzte Ibarako kaleak. Kanean gora eta behera dabilten bitartean, Herriko Plazan hotzak kentzeko moduko

mokadua banatuko dute plazara joaten diren guztien artean: buzkantzak eta ardo beltza.

SEI BILDOTS ZOZKETAN

Horren ostean, 19:00ak inguruan, zozketa egingo du Kalejiran taldeak. Sei bildots eder zozkatuko dituzte, baina ez lagun bakarrendako; izan ere, sei zenbaki irabazle izango dira eta bakoitzari bildots bana emango diote.

Eta gero, trikiti eskolan dabilten ikasleek ondo irabazitako luntxa izango dute Ehiztari Txoko elkartean.

Jai polita iragarri dute zaturako eta Kalejiran Trikitixa Taldeak herritar guztiak gonbidatu gura ditu ospakizunera.



San Martin eguna dela-eta, Txirritola Euskara Elkarteak urteroko Partxis Lehiaketa antolatu du

UBANE MADERA

San Martin egunean ohitura bihurtu denez, bihar, zapatua, Partxis Lehiaketa izango da Aramaion. Txirritola Euskara Elkarteak antolatu du. Nahi adina lagunek har dezake parte, betiere 6 urtetik gorakak badira. 16:30ean hasiko dute aurtengo txapelketa, osoko bilkuren aretoa.

Azaroaren 11n da San Martin eguna, Aramaio patroien eguna; eta azken lau urteotan moduan, Txirritola Euskara Elkarteak Par-

txis Lehiaketa antolatu du. Baina ez da izango patroien egunean bertan, baizik eta bihar, zapatua. 16:30ean hasiko da lehiaketa, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

ADINAREN ARABERAKO HIRU MAILA

Hiru mailatan banatuko dituzte jokalaria, adinaren arabera sailkatuta: 6 eta 12 urte artekoak, 13 eta 16 urte artekoak eta 17 eta 100 urte artekoak.

Hala, lehenengo bi mailatan lehiaketa irabazten dutenek 60 euroko saria eskuratuko dute. Baina ez dirutan, baizik eta liburu dendaren baten, eskolako material dendaren baten edo musika

dendaren baten gastatzeko txartelak emango dizkiete.

Nagusien mailan irabazten dutenek, berriz, 90 euroko saria poltsikoratuko dute. Kasu horretan dirutan.

Parte hartzeko ez da izena aldeztu aurretik eman behar, lehiaketara joatearekin aski da

JOAN ETA JOLAS EGIN

Txirritola Euskara Elkartearen lehiaketa horretan parte hartzeko ez dago aldeztu aurretik izena eman beharrik. Bihar bertan lehiaketa hasi baino apurtxo bat lehenago udaletxean agertzearekin nahikoa da. Han euskara elkartearen ordezkariak izango dira, jokalaria guztien izenak eta hartzen eta jokatzen arauak eta argibideak esplikatzeko.

Esan beharra dago urte batek bestera parte-hartzaile gehiago ibiltzen dela partxisean Txirritola elkartearen eskutik. Iaz, esate baterako, 56 lagunek hartu zuten parte.

LABUR

Udaletxeko lanak esleitzeko lehiaketa zabalik

Udaletxea zaharberritzeko lanak esleitzeko baldintzen plegua onartu zuen udalbatzarrean. Eta, alegaziorik ez badago, bere horretan utziko dute plegua. Horren arabera, iragarkia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 26 egun naturaleko epea dute enpresek proposamenak aurkezteko. 1a 291.500 euroko aurrekontua eta zazpi hilabeteko epea dago lanok egiteko.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuliako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BERTSO TXAPELKETA

Joan den astean Bagare Bertsoaren txapelketaren berri eman genuen. Esan genuenaren arabera, bi aramaiarrek parte hartu behar zuten txapelketan, baina oker genbiltzan. Izan ere, hirugarren bat ere badabil txapelketa horretan: Iker Agirre. Hain zuzen ere, Ikerrek Andere Arriolabengoarekin batera jokatu du kanporaketa azaroaren 21ean, Legutianoko elkartean, 20:30ean. Bestalde, joan den barrikuko kanporaketan, Manex Agirre hirugarren lekuan geratu zen. Manexek esan digu gustura geratu zela egindako saioarekin, baina puntuen arabera Ander Lizarralde oñatiarrak irabazi zuen eta Miren Artetxe geratu zen bigarren. Horrek esan gura du Manex ez dela finalera pasatuko.

ZINEMA

Super agente Cody Banks filma emango dute.

BAÑERAKO PARTIDUAK

10:00etan mutilek jokatu dute Canciller Ayalaren kontra; eta neskek 11:00etan, Olabideren kontra. Aramaion.

Gantzagako auzotarrek San Millan jaien 25. urteurrena ospatuko dute aurten

UBANE MADERA

San Melixenak ospatzen hasi zirela 25 urte beteko dira aurten. Hori dela eta, urteroko egitarauari berritasunak gehitu dizkiote gantzagarrek. Adibidez, auzoko nagusiei omenaldia egingo diete eta 25 urteon gaineko argazki erakusketa ipiniko dute.

Luxuzko jaiak antolatu dituzte gantzagarrek aurten. Jaien 25. urteurrena dela-eta, ganoraz ospatzeko asmoarekin. Prestatu duten egitarau zabalean, besteak beste, nabarmentzekoa da Marsel magoa eramango dutela auzora bihar, zapatua, eta gauean Luhartz taldearekin dantzaldia izango dela. Horrez gainera, egun osoan azken 25 urte hauen laburpena ikusi ahal izango da argazkitan, elizan.

Edozelan ere, jaia gaur, bari-kua, hasiko da. 21:00etan etxafuegoak jaurtiko dituzte. Gero, 21:30ean Arrasate Musikaleko txistulariek kontzertua emango dute. Zortzi txistularik joko dute, Juan Karlos Larreategiren zuzendaritzapean. Euskal kantu herrikoiak joko dituzte, *Zortzikoa* eta *Uztai haundi dantza*, esaterako.

OMENALDIA ETA ARGAZKI ERAKUSKETA
Bihar goizean segituko du jaiak. 09:00etan kanpai-errepikak eta etxafuegoek gogoraraziko diete auzotarrei badela esnatzeko ordua. Gero, 12:00etan meza izango da, Aretxabaletako abesbatzak kantatuta. Mezaren ostean auzo-



GANTZAGA

Irudiotako moduko argazkiak ikusi ahal izango dira Gantzagan bihar, egun osoan.

ko nagusiei omenaldia egingo diete eta 13:00etan *Vermouth* dantza izango da, Larrea anaiekin. Horrekin batera, esan beharra dago mezaren ostean zabalduko dutela azken 25 urte hauetako argazkien erakusketa.

LEHEN, PARRANDA HOBEAK

Auzoko lehengo jaien argazkiak ikusi ahal izango dituzte han. Jendeak gogoratuko du zelan sasoi baten, batez ere jaiak sortu

zirenean, sekulako parrandak egiten zituzten; jende piloak elkartzen zen eta Ibarrara jaisten ziren Gantzagakoa amaitzen zenean parrandarekin han jarraitzeko.

Aurtengo jaiekin segituz, zapatuan, 17:00etan Mus Txapelketa jokatu dute Izpizte elkartean; 17:30ean Marsel magoaren saioa izango da; eta 18:30ean disko-festa egingo dute, gaztetxoendako. Gauean, 23:00etan hasiko da Luhartz taldearen dantzaldia; eta

kalean dabiltzanei oheratu aurretik gorputza berotzeko txokolate beroa emango diete, 03:00etan.

DOMEKAN, GEHIAGO

Domekan, 11:00etan meza esango dute, auzoko hildakoen alde; 12:00etan Gantzagako XXIII. Txirindulari Igoerie jokatu dute. 13:00etan trikiti-poteoa egingo dute, Larrea anaiekin; eta 17:00etan Tute Txapelketa jokatu dute, Izpizte elkartean.

San Martin eskolakoak gustura ekimen berriekin

U.M.

Pozik etorri ziren barikuan San Martin eskolako umeak Barriako barnetegitik; eta pozik ibili dira baita ere oraingo astean bide hezkuntzako eskoletan. Ondo ibiltzeaz gain ikasi ere ikasi dutela adierazi digute guri; natura kontuak batetik eta zirkulazio kontuak bestetik.

Martitzen goizean kiroldegiko pilotalekuan aurkitu genituen San Martin eskolako hirugarren zikloko ikasleak. Bizikleta elektriko moduko batzuekin zebiltzan, ertzainek esaten zutena adiarazten zuten. Izan ere, pare bat egunez bide hezkuntza lantzen ibili dira Aramaioko eskolakoak Barne Sailaren laguntzarekin. Arlo teorikoa eta praktikoa landu dituzte. Esan digutenez, batez ere zirkulazio-seinaleak desberdintzen ikasi dute eskola horie-

tan, baita oinezkoen arauak zeintzuk diren ere. Ikasleen ustez, interesgarriak dira eskolok, batez ere nagusi egitean gidatzeko baimena ateratzeko.

INGURUMENA AZTERGAI

Bestalde, joan den astean hiru egunez Barriako barnetegian izan dira. Han ere ikasten eta jolas egiten, Arabaz Blai programaren eskutik. Mendira, basora... joan dira eta, esaterako, arbolak, landareak eta antzerakoak ezagutzen erakutsi diete, baita ukimena eta usaimena erabiltzen ere gauzak jakiteko; lagunekin konfiantza hartzen ikasten ere ibili dira... Bestalde, jolasak egin dituzte, antzinakoak, eta herri kirolak ibili dira. Era berean, Gasteizen ere izan dira, oso museo berezia ikusten: Fournier kartajoko museo, hain justu. Oro har, gustura ibili direla kontatu digute. Iaz halako beste baten egon ziren, Hondarribian.



SAN MARTIN ESKOLA / GORKA MORRAS

Goian, umeak Barriako barnetegian; behean, bide hezkuntza ikasten.

ERRETRATUZAHARRA

Danborradako
karrozako
neskak

Saso baten, San Juan bezperan egiten zen danborrada Udalpe elkarte gastronomikoak antolatzen zuen. Orduan, elkartekoak arduratzen ziren guztia egiteaz; adibidez, danborradako erregina eta haren laguntzaileak aukeratzen zituzten; eurak joaten ziren nesken bila, alegia. Pentsa zenbaterainoko garrantzia zuen orduan horrek, egunkarietan ipintzen zituztela gero haien izenak.

Oraingo asteko argazki zaharrak erreginari eta haren damei karrozan laguntzen joan ziren neska taldea erakusten du. Udalpe elkarteak aukeratutakoak izaten ziren. Gure berriemaileak esan digunez, erregina-
ren eta ohorezko damen karroza betetzeko ipintzen zituzten. Eta esan beharra dago berezia dela oraingo asteko argazki zaharra, Arrasaten egin zen aurreneko danborradakoa da eta, 60ko hamarkadakoa.

Honakoak dira egun hartan karrozan joan ziren nesken izenak: behean, ezkerretik hasita, Milagros



Berezibar, Mari Karmen Barrutia eta Juanita Arana. Eta goian, ezkerretik eskumara, Mari Karmen Ziardegi, Natalia Bengoa eta Mertxe Juldain.

Gure berriemaileak gogoratzen du ilusio handiarekin egin zutela aurreneko danborrada hura, eta arrasatearrek ilusio handiarekin ikusi zutela,

jende asko batu zela. Baina batez ere gogoratzen du zelan desfilean irteteko Musakolara joan behar izan zutela berak eta bere lagunak, eta han neska batek aurpegia margotu egin ziela; ondo margotu, gainera. Era berean, soinekoak ere eman zizkieten, ondo dotore joateko. Erregina eta damak

zuriz joaten ziren eta gainerako neskek, berriz, bestelako koloreetako soinekoekin.

Argazkia: Arrasate Press

Informazioa: Mertxe Juldain

Urtea: 60ko hamarkada

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Altamirako
lanak 90eko
hamarkadan

Altamira auzoan egin zituzten lanek zeresan handia eman zuten 90eko hamarkada hasieran. Uarkapeko etxe berriak egiteko lehena go zeuden etxe zaharrak bota zituztenean, lur mugimenduak izan ziren, eta Altamirako biztanleak beldurtu egin ziren. Altamirako lurrei eusteko horma eraiki behar izan zuten, etxe berrietako lanak atzeratu egin zituzten.



≈ 1991 Goiko argazki zaharra 1991ko urtarrilaren 18an ateratzen zuten. Ordurako Altamirako lanak hasita zeuden.



2003 Altamirako biztanleek urte askoan izan dituzte euren auzora joateko errepide arazoak. Orain, errepide txukuna dute, baita pasealekua ere.



Txitxinpe

Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketaGipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

UGARTE

Industria
hornidurakSan Andres auzoa 2. 5-6
Pab.Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40


SAIO BEREZIA

Prestige:
orain dela urtebete
bizitakoa gogoan

Martitzenean, azaroaren 11n
20:30ean

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko
duzu!*



Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Merkatariok, badatoz Gabonak!

Aurki, zure publizitate kanpaina
egiten hasi beharko zara.

Ibarreko mediorik eraginkorrenak zure esku
dituzu: Arrasate Press, Txirritola, Arrasate
Irratia, GOITB, Goienkaria...
Goienako publizitate sailak zure neguko
kanpaina goitik behera eramango dizu.
Gurekin harremanetan jartzeko,
deitu 943 71 23 91 telefonora.

GRUPO **RKUZ** 1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

